



Arartekoaren 7/2011 gomendio orokorra, urriaren 28koa.
Poliziaren jarduera eta praktiketako berme sistemari buruzkoa.

I. ZURIBIDEA

II. POLIZIAREN PRAKTIKAK IKUSKATZEKO TRESNAK EZARRI BEHARRA

II.1. Ikuskapen tresna orokorrak

II.1.1. Ikerketa

- a) Ikerketaren gutxieneko estandarrak
- b) Ikerketa arlo penaleko prozedura judizial batekin batera gertatzea
- c) Arartekoaren esku-hartze esparrua prozesu penal bat batera gertatzen denean

II.1.2. Poliziaren jarduerari buruzko datu bilketa eta ebaluazioa

II.1.3. Arrazoi nahikoa eta jarduerak erregistratzea

II.2. Zenbait jarduera ikuskatzeko berariazko tresnak

II.2.1. Indarraren erabilera kontrolatzea

II.2.2. Auzibidean hasiera batean hutsegitetzat jotako gertakariengatik atxilotzea

II.2.3. Polizien argiketen eta salaketa administratiboen edukia kontrolatzea, horiek eragin dituzten egintzei dagokienez

III. BERMEAK ATXILOKETAN

1. Abokatu-laguntza
2. Atxiloketaren zioari eta eskubideei buruzko argibideak
3. Atxiloketaren iraupena
4. Atxiloketa epaitegiari jakinaraztea
5. Gorputza miatzea
6. Atxiloketan burututako jardueren erregistroa
7. Otorduen ordutegiari eta jarduerak burutzen diren lekuei buruzko irizpideak ezarri beharra
8. Bideoz grabatzeko sistema

IV. INDARRA ERABILTZEA



V. POLIZIA UNIFORMEAN NORBERA IDENTIFIKATZEKO ZENBAKIA EDO ERREFERENTZIA JARTZEA

VI. ATZERRITAR JATORRIA DUTEN PERTSONEKIN JARDUERA DISKRIMINATZAILEAK SAIHESTEKO TRESNAK EZARTZEA

1. Identifikazio kontrolak
2. Poliziaren lanaren garrantzia arrazagatiko delituen kontrako borrokan
3. Pertsonen arraza edo nazio jatorriari buruzko daturik ez ematea, eskaintzen den informazioa ulertzeko guztiz ezinbestekoak ez badira

VII. PRESTAKUNTZA

VIII. JARDUTEKO PROTOKOLOAK EZARTZEA

IX. ONDORIOAK

* * * * *

I. ZURIBIDEA

Poliziaren lana, bere izaeragatik, pertsonen askatasunarekin eta bestelako oinarrizko eskubideekin tentsio saihestezina duen eremuan gertatzen da; hori dela-eta, eskubideak bermatzeko erakundeek, hala nola Arartekoak, arreta berezi eta etengabea jarri behar diote haien erabilerari.

Dena dela, eginkizun horri dagokionez zuzenean esku hartzeko aukera gutxi daukagu. Horren zio nagusia da, hari lotuta gertatzen diren kontu asko justizia auzitegiek ikuskatzen dituztela; hori dela-eta, ez daukagu haietan esku hartzerik (otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 art.)¹. Bestalde, askotan poliziaren jarduera jakin batez kexatzen diren pertsonen emandako bertsioak eta administrazioak ematen diguna guztiz desberdinak dira eta, beraz, ez daukagu frogatzeko beste daturik bertsio biak baino, gertakariak argitzen jarraitu ahal izateko.

Arrazoi hori dela-eta, eremu honetan egiten dugun lana batez ere prebentziokoa da eta, funtsean, legez kanpoko praktikak ekiditeko eta, gertatuko balira, haiek aurkitu eta zuzentzeko tresnak ezartzean datza.

Zentzu horretan jarduera asko burutu ditugu. Horrela, "Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txostenean² zenbait gomendio egin genizkien Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari eta Bilboko Udalari,

¹ Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulua dioenez: "Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko. Horretan hasi ondoren doakionen batek agizko Epaitegien edo Konstituzio Epaitegiaren aurrerako zuzenketa-eskea edo goradeia sartzen badu, azterketak geldiarazi egingo dio".

² 1998ko ohiko txostena.



zona horretarako jarritako polizia funtzionarioak administrazio horien mendekoak baitziren. Gomendioak honakoei buruzkoak ziren: poliziaren esku-hartzeen baliozkotasuna eta eraginkortasuna ebaluatzeko adierazleak eduki beharra, polizien hautaketa eta prestakuntza, balizko gehiegikerien aurreko kontrol tresnak indartzea eta prebentzio tresnak ezartzea.

Gomendio horietako asko, batez ere balizko jarduera irregularrak kontrolatu eta prebenitzekoak, orokorrak dira eta, beraz, gure kontrol eremuaren mendeko beste polizia-kidegoetara heda daitezke; hori dela-eta, gure esku-hartzeetarako parametro gisa erabili ahal izan ditugu.

Azken urteotan haietako batzuk sakondu ditugu. Esaterako, "Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan" gomendio orokorrean³, atxiloketan gorputza arakatzeari buruz jardun dugu berariaz; bertan, Ertzaintzak eta udaltzaingoek, gure iritziz, gai horretan jarraitu eta errespetatu beharreko jarraibideak eta bermeak adierazi ditugu.

Halaber, "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako" gomendio orokorrean⁴, poliziaren praktikak ikuskatzeari buruz jardun dugu; betan, zenbait proposamen egin ditugu tresna zehatzei buruz.

Beste gai batzuetan ere gomendio orokorrak egin ditugu, hala bola poliziaren datuak ofizioz baliogabetzea⁵ eta poliziak etorkinei buruz duen informazioari eman beharreko trataera⁶.

Urteko txostenetako Herrizaingo arloari buruzko sarreretan alor honetan burutu dugun lanaren berri eman dugu, baita egin dugun jarraipenaren eta egin ditugun proposamenen berri ere.

Urte hauetako guztietako lanari esker, egiaztatu dugu gure gomendiotako batzuk ez direla betetzen eta kasu askotan haiek abiarazteko behar diren tresnak jarri ere ez direla egin.

Horri eranstean badiogu "Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txostenean jasotako gomendioak hasieran zona horri buruzkoak zirela, ikusi dugu gaiari berriz heltzea komeni zela, beste gomendio orokor bat eginez. Haren bidez, esandakoan sakondu eta azken urteotan ikusi ditugun gabeziarik garrantzitsuenei buruzko zenbait hobekuntza proposatu nahi dira.

³ 2001eko ohiko txostena.

⁴ 2003ko ohiko txostena.

⁵ "Ertzaintzak eta udaltzaingoak poliziaren xedeetarako biltzen dituzten datu pertsonalak ofizioz baliogabetzea" gomendio orokorra (2007ko ohiko txostena).

⁶ "Euskal autonomia erkidegoko administrazio publikoen menpeko polizi kidegoek jokaera-kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako" gomendio orokorra (2004ko ohiko txostena).



Gure azterketa euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoetara (Ertzaintza eta udaltzaingoak) mugatuko da, gure kontrola haietara iristen baita, eta gure gomendioak behin eta berriz betetzen ez direla atzeman dugun eremuetara. Ereku bakoitzean, ikusi ditugun arazoak adierazi eta haiek konpontzeko neurriak proposatuko ditugu.

Bestalde, atxiloketa oinarrizko eskubideetan eragin handiena duten polizia jardueretako bat da, askatasunerako eskubidea kendu eta beste eskubide batzuk ere murrizten dituelako. Hori dela-eta, Arartekoak etengabe erreparatu die haiek egiteko modu eta baldintzei.

Urtero atxiloketa zentroetara egiten ditugun bisitei eta kexak izapidetzean biltzen ditugun informazioari esker, eremu horretan gertatzen diren gabeziak nolabait ezagut ditzakegu⁷.

Duela gutxi azterlan bat egin dugu eta bertan, berariaz, inkomunikaturiko atxiloketako berme sistema aztertu dugu⁸. Azterlan horretako gogoeta eta gomendioetako asko komunak dira edozein atxiloketatarako, komunikatua zein inkomunikatua izan eta, beraz, orain egingo dugun azterketan ere kontuan hartu behar dira.

Hala ere, uste dugu egokia dela gomendio hori baliatzea atxiloketaren berme sistemaren alderdi batzuetan sakontzen jarraitzeko.

Halaber, komenigarria iritzi diegu indarra erabiltzeari buruzko aipamena sartzeari eta beste gai berri batzuei ere heltzeari, hala nola poliziaren uniformearen identifikazio zenbakia erakusteari eta atzerritarrekin jarduera diskriminatzaileak saihesteko tresnak ezartzeari.

II. POLIZIAREN PRAKTIKAK IKUSKATZEKO TRESNAK EZARRI BEHARRA

Erakunde honen aurreko esku-hartzeetan, azpimarratu dugu polizia jarduera banakako askatasunekin eta oinarrizko eskubideekin etengabeko tentsioan egoteak dakarren berezitasuna, baita, arrazoï horrexegatik, jarduera hori legezko manuei guztiz lotuta burutzeak daukan garrantzia ere. Era berean, nabarmendu dugu polizia jarduera arautzen duten arauak maiz hautazko tarte zabala ematen dietela polizia funtzionarioei eta egoera horrek dakarren arriskuaz ohartarazi dugu. Azken batean, adierazi dugu hautazko tarte horrek ezin duela inola ere ahalbidetu esku-hartze arbitrarioak edo oinarri gabekorik.⁹

⁷ Haien berri eman dugu ohiko txostenetako Herrizaingo arloko sarreran eta txosten haietan jasotako "Ziegak. Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak" txosten bereziaren jarraipenean.

⁸ "Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak" (2010eko ohiko txostena).

⁹ "Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txosteneko 8. gomendio zehatza.



Alderdi horietako batzuk Nazio Batuen Batzar Nagusiak azpimarratu zituen Legea betearazi behar duten funtzionarioentzako jokabide kodean. Batzarrak, *“legea betearazi behar duten funtzionarioek arduraz eta duintasunez, giza eskubideen printzipioen arabera, betetzen dituzten eginkizun garrantzitsuak”* azpimarratu ondoren, adierazi zuen, badakiela *“eginkizun horiek betetzeak gehiegikerietarako aukerak”* dakartzala eta *“ordena publikoa babesteko legea aplikatzeko eginkizunen izaerak eta eginkizun horiek betetzeko moduak eragin zuzena daukatela norbanakoen eta gizarte osoaren bizi kalitatean”*¹⁰.

Erakunde honetan poliziaren balizko gehiegikeriengatik jasotzen ditugun kexetako asko polizia bulegoetatik kanpoko esku-hartzeei buruzkoak dira; haiei buruz, printzipioz, informazio iturri gutxiago izaten dira eta, beraz, oso beharrezkoa da haiek ikuskatu eta zelan burutzen diren ezagutzeko tresnak ezartzea.

Tresna horiek hiru eginkizun betetzen dituzte, poliziaren jardura ebaluatu eta egindako balorazioaren arabera jokatzeko datuak biltzea ahalbidetu ez ezik -eta horrek, azken batean, herritarrei emandako zerbitzua hobetu baino ezin du egin-, balizko portaera irregularrak prebenitu eta haiei antzeman eta zuzentzeko ere balio baitute.

Gure azterketan, gure aburuz, orokorrak direnei helduko diegu eta, gure iritziz, arlo jakin batzuetan ezarri behar direnak ere aztertuko ditugu.

II.1. Ikuskapen tresna orokorrak

Atal honetan honakoak aztertuko ditugu: poliziaren balizko portaera desegokien ikerketa, polizia zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko datuak bildu ahal izateko sistemak ezartzea eta jardueren zioak eta erregistroa.

II.1.1. Ikerketa

Erakunde honek euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei gehien errepikatu dizkien gomendioetako bat haien arduradunek ofizioz barne ikerketa prozedura abiarazteko premia da, poliziaren baten balizko jardura desegoki baten berri iristen den bakoitzean, gertatutakoa argitzen ahalegindu, jardura behar ziren bideetatik gertatu zen egiaztatu eta, beharrezkoa balitz, behar diren neurriak, diziplinakoak edo bestelakoak, hartzeko¹¹.

¹⁰ Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1979ko abenduaren 17ko 34/169 Ebazpena, zeinek legea betearazi behar duten funtzionarioentzako jokabide kodea onartzen baitu.

¹¹ “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorra (2003ko ohiko txostena). Zentzu bereko adierazpenak egin ditugu torturari eta tratu anker eta laidogarriei buruz “Torturari buruz Ararteko erakundeak egindako adierazpena” izenekoan (2004ko ohiko txostena) eta “Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak” izenekoan (2010eko ohiko txostena).



Zehazki, adierazi dugu polizia arduradunek aintzat hartu behar dituztela herritarrek egindako kekek edo salaketak, zein ere den haien berri izateko bidea, betiere ikertu eta argitu behar duten lehen zantzu gisa, argi eta garbi gezurra edo sinesgaitzak direnean izan ezik.

Bestalde, azpimarratu dugu ikerketa zabaltzeak ez duela esan nahi kekek sinesgarritasun osoa ematerik ezta polizien profesionaltasuna zalantzan jartzetik; aitzitik, funtsezko tresna da prebenitu eta, halakorik balego, jarduera desegokiei antzeman eta zuzentzeko.

Askotan jabetu gara arlo horretan sortzen diren zailtasunekin¹². Sumatu ditugun arazoak errepikatu egiten dira. Batez ere, nahikoa ez ikertzeari –orokorrean ukitutako polizien bertsioa jasotzera mugatzen dira- eta kekek aipatzen duen polizia jarduerari lotuta auzi penal bat izapidetzeak eragindako ikerketa faltari lotuta egoten dira.

Praktikan, jokabide horrek ikerketa atzeratzen du, eta horrek tresnaren eraginkortasuna baldintzatzen du.

Alderdi biak aztertu –esan dugunez, gure gomendioa ez betetzeko arrazoirik ohikoenak dira- eta, gure iritziz, mota horretako ikerketetan jarraitu beharreko gutxieneko arauak ere aipatuko ditugu.

a) Ikerketaren gutxieneko estandarrak

Polizia jarduera baten salaketa edo arrazoizko zantzu ororen ikerketak azkarra eta inpartziala behar du izan¹³. Bestalde, haren edukiak egokia eta nahikoa izan behar du gertakariak argitzeko.

Ikerketa berehalakoa izatea erabakigarria da tresna horrek gertatutakoa argitzeko zereginean eraginkorra izateko gutxieneko bermeak izan ahal izateko. Horregatik azpimarratzen dugu polizia arduradunek ikerketari balizko jarduera irregular baten berri izan bezain laster ikerketari ekitearen garrantzia eta arbuiatzen ditugu arrazoirik gabe hura atzeratzeko ohiturak.

Hala ere, zaila da alde aurretik zehaztea ikerketak izan beharreko edukia, kasu bakoitzaren inguruabarren eta salatutako irregularitasunaren larritasunaren arabera izango delako, salatutakoaren proportziokoa izan beharko baitu. Gure ikuspuntutik, ordea, eztaba da gertatutakoa ezagutzen saiatzeko ahalegina

¹² Ohiko txostenetako Herrizaingo arloari buruzko sarreretan gaiari buruzko informazio zehatzagoa aurki daiteke.

¹³ Atxiloketari buruz, NBEko Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9ko 43/173 ebazpenean onartutako "Atxiloketa edo espetxeratze mota oro jasaten duten pertsona guztien babeserako oinarriak" testuko 7. oinarriak honakoa dio, helburu horrekin: "Estatuek, legez, hemengo oinarrietan adierazitako eskubide eta betebeharren aurkako egintza oro galarazi behar dute, holako egintza guztiei dagozkien zehapenak jarri behar dizkiete eta horri buruzko salaketen ikerketa inpartzialak egin behar dituzte".



egin behar dela beti eta gertaerak argitzeko baliagarriak diren ikerketa aukera arrazoizko guztiak agortu behar direla.

Zentzu horretan agertu dira auzitegien eta nazioarteko erakundeen zenbait epai, batez ere torturen edo tratu anker eta laidogarrien salaketei buruzko ikerketa judizialen esparruan. Haien berri eman dugu zenbait esku-hartzetan, uste baitugu Auzitegi Konstituzionalak eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiak haiei buruz sortu duten doktrinatik eratorritako irizpideak polizia ikerketaren eremuan ere erabili behar direla¹⁴. 2011 honetan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berriz aipatu ditu ikerketaren gutxieneko estandar horiek¹⁵.

Maiz, administrazioak, poliziaren balizko jarduera desegoki bati buruzko kexa jasotzen dutenean, egiten duten jarduera bakarra¹⁶ nahastutako polizien bertsioa biltzea, ontzat ematea, eta zuzen jokatu zutela erabakitzea izaten da, zuri bide bakarra poliziek eurek salatutako gertakariei buruzko kontakizuna izanda eta poliziaren jokabideaz kexatzen denak agertutako kontuak baloratu ere egin gabe.

Esanguratsua da, kasu askotan, polizia arduradunek kexa aurkeztu duenarekin edota polizia jarduera ikusi dutenekin, itxuraz gertakarietatik kanpokoak izanda, egiaztatzerik txikiena ere ez egitea.

Egoera horren aurrean, berriz errepikatu behar dugu kexen ikerketa ezin dela nahastutako polizien euren lekukotasuna biltzera mugatu, bestelako ikerketa jarduerak egiteko ezintasuna justifikatuta egon ezean, eta ezin dela mugatu, era berean, burutu zuten poliziek emandako bertsioa, beste barik, ontzat ematera. Nahastutako polizien kontrako bertsio bat, polizia argiketa bat edo salatutako gertakarien kontrako administrazio salaketa bat egoteak ezin du balio, berez, bestelako ikerketa jarduerak egitea baztertzeko edo poliziaren jardueraren egokitasunari buruzko epaia bakarrik oinarritzeko, hori kexa erabat arbuizatzearen parekoa litzatekeelako.

Gogoan izan behar da kexa batek ukitutako poliziak ez direla lekuko inpartzial eta objektiboak euren jokabidea azaltzeko eta, beraz, haien adierazpenek ezin dute izan ordenamendu juridikoak beste eremu batzuetan –esaterako, zigortzeko eremuan– berariaz onartzen dien egitasun presuntzioa izan.

Gure ustez, oharpen horiek zentzu osoa hartzen dute zalantzan jartzen dena, hain zuzen ere, poliziek argiketa batean edo administrazio salaketa batean jaso duten

¹⁴ "Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako" gomendio orokorra (2003ko ohiko txostena), Torturari buruz Ararteko erakundeak egindako adierazpena" (2004ko ohiko txostena) eta "Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak" (2010eko ohiko txostena).

¹⁵ Otsailaren 1eko (2. saila, GEEA\2011\16), 2011ko martxoaren 8ko (3. saila, GEEA\2011\29) eta 2011ko maiatzaren 10eko (1. saila, GEEA\2011\44) epaiak.

¹⁶ Hori izaten da ematen zaigun informazioa ikerketaz galdetzen dugunean eta halaxe adierazi zuten, halaber, gai hori aztertu zuten azken epaietan, bai Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEAren epaia, 2011-3-8koa, lehen aipatua), bai Auzitegi Gorenak ere (AGren 483/2011 epaia, maiatzaren 30ekoa).



gertakarien bertsioa bera den kasuetan, guk aztertzeo aurkezten diren askotan gertatu legez.

b) Ikerketa arlo penaleko prozedura judizial batekin batera gertatzea

Ohikoa da, polizia jardueri buruzko kexak eragiten dituzten egitate batzuk, aldi berean, jurisdikzio penalaren azterketa pean egotea, esku-hartzea gertatu bitartean atxiloketa bat edo atxiloketarik gabeko egozte penal bat gertatu delako edo nahastutako pertsonen salaketa penala jarri dutelako polizien kontra, edo inguruabar biengatik.

Halako kasu askotan ohikoa da, halaber, gertakariak argitzeko egin duten ikerketari buruz galdetzen dugunean, administrazioek prozedura judizial bat izapidetzen ari direla eta egoera horrek ikerketa edo are Arartekoak jardun ahal izatea baldintzatzen duela esatea.

Zalantzarik gabe, kexa bat eragin duten gertakariengatik prozedura penal bat bideratzeak zenbait muga ezartzen dizkiela polizia administrazioei gai horretan, hala nola prozesuan epaitzen ari diren jokabideak zigortzeko galarazpena, zehapen ebazpena eman ahal izateko auzitegien epaiari itxaron beharra eta jurisdikzio ordena horretako epai irmo batek halakotzat jotzen dituen gertakariak frogatutzat jotzea. Hori dena, ordena penala administrazio ordenari nagusitzeko printzipioa aplikatzearen ondorioz.

Hala ere, uste dugu inguruabar horrek ezin diela galarazi administrazio horiei salatutako polizia jarduera ikertzea ezta behar diren parametroen arabera izan dela egiaztatzea ere.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak berak, gure iritziz, planteamendu horren alde egiten du, prozedura penala polizien aurkakoa den kasuei buruz hitz egiten duenean honela baitio: *"Euskal Herriko Poliziako kideen aurkako prozedura penala hasteak ez du galaraziko egitate horiengatik lehenagoko argibideak edo legokiokoen diziplina espedientea agintzea eta, beharrezkoa balitz, espedientea egin zaienak behin-behinean kargugabetu eta egokiak diren gainerako badaezpadako neurriak hartuko dira. Halarik ere, prozedura horiek ez dira behin betiko ebartziko arlo penaleko epaia irmoa izan arte, eta hark dakarren egitate frogatuen adierazpenak administrazioa lotuko du"* (9.15 art.).

Halako kasuetan funtsezkoa da prozedura penalean zer epaitzen den zehazki ezagutzea. Gure ikuspegitik, ez da berdin polizia funtzionarioen portaera ala poliziaren esku-hartzea dela-eta egindako argiketari jasotako gertakariak izatea. Bigarren kasuan, auzitegiak ez du kexa eragin duen polizia jarduera aztertzen, delitua edo hutsegitea leporatzen zaion pertsonaren portaera baizik eta, beraz, ikertu beharreko gaien ez legoke auzitegien esku-hartze zuzenik.

Argiketari jasotako egitateak epaitzen direnean, gainera, egotzitako pertsonaren absoluzioa poliziaren esku-hartzearen desegokitasun edo gehiegikeria zantzua izan



liteke, baina haren kondenak ez luke inolaz ere esan nahi poliziaren portaera egokia izan zenik. Elkar orekatzen ez duten legez kontrako jarduera bi batera gertatzea baino ez litzateke.

Polizien aurkako salaketa judiziala egondako kexa askotan, auzitegien epaiaren ondoren ez zaio ikerketari berrekiten salaketa artxibatzen bada edo epaia absoluziokoa bada.

Berriz esan behar dugu gertakari askok garrantzi penalik ez izateak ez dakarrela berez polizia jardueraren zuzentasuna, bete behar zituen arauen arabera izanaren ikuspegitik, ezta bestelako erantzukizunik ez egotea ere, hala nola diziplinakoa, epaitzeko eremu desberdinak direlako.

Hori guztia dela-eta, uste dugu justiziak esku hartzen duen kasuetan polizia agintariak hastapeneko ikerketa bat egin behar dutela, adierazi dugunaren arabera, eta epaiaren ondoren ere poliziaren portaeraren azterketa zorrotza egin behar dutela, arlo penalean egindako epaiketa adierazitako ikuspegitik egindako poliziaren jokabidearen balorazioarekin osatuz.

c) Arartekoaren esku-hartze esparrua prozesu penal bat batera gertatzen denean

Arestian adierazi dugunez, Arartekoak eskatzen dienean administrazioek ez ikertzeko edo eskatutako informazioa ez emateko erabili ohi dituzten arrazoiak bat, gure esku-hartzea erabat arbuiatzea da, argudiatuz gertakariari lotutako prozedura penal bat ari dela izapidetzen.

Kexa eragin duen polizia jarduera berari lotutako gertakariengatik prozedura judizial penala izapidetzeak, jakina, muga handiak dakartzkio erakunde honi, batez ere otsailaren 27ko 3/1985 Legeko 13.1 artikulutik eratorriak, honela baitio: "Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko".

Hala ere, uste dugu artikulua horrek ez duela guztiz baztertzen gure esku-hartzea halako kasuetan. Zalantzarik gabe, jurisprudentzia penalak ezagutzeko gordetako kontu zehatzak aztertzea eta haiei buruzko iritzia ematea galarazten dizkigu. Baina, gure irizpidearen arabera, galarazpen horrek ez digu ukatzen halako kexetan gure esku-hartzea kokatzen dugun prebentzio arloan jardutea, polizia arduradunei adierazi ditugun arauen arabera ikertzeko eskatuz eta arau horiek bete direla egiaztatuz.

Gure aburuz, aipatu manua ez da oztopoa erakunde honek polizia arduradunek burutu duten ikerketari buruzko informazioa jaso ahal izateko. Ezta, gure iritziz, prozedura judizialean sartzen ez diren kexaren beste alderdiak aztertu edo kasuan Arartekoak euskal herri-administrazioen mendeko polizia-kidegoei zuzendu dizkion beste gomendio orokorrak bete diren egiaztatu ahal izateko, herritarrei dagozkien eskubideen aurkako balizko jarduerak prebenitzeko lanaren esparruan.





Gure ustez, azken batean, inguruabar horrek ezin liteke oztopoa izan administrazioek helburu horrekin burutu dituzten jarduerak Arartekoari jakinarazteko.

Gure aburuz, daukagun interpretazioa bat dator Konstituzioak (art. 43 eta 54.) ezarritako askatasunak eta oinarrizko eskubideak bermatzeko sistemarekin; izan ere, haren arabera jurisdikzio arrunta, Konstituzio Auzitegia eta herriaren defendatzailea sistema ixteko tresnak dira. Hortaz, Konstituzioak osagarri eratzten ditu erakunde horiek, eta haien esku-hartze esparrua ordenamendu juridikoak bakoitzari emandako eginkizunen arabera dago ezarrita; beraz, haien jarduera bat etor liteke kasu berean, zeinek bere xedea izanda bada ere.

II.1.2. Poliziaren jarduerari buruzko datu bilketa eta ebaluazioa

“Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan” txostena egin genuenetik, polizia kideek euren jardueraren zenbait alderdiri buruzko datuak eduki, ebaluatu eta horren arabera jokatu ahal izateko tresnak izatea komeni dela proposatu dugu, gure ustez egokiak direlako balizko jarduera irregularrak prebenitzeok eta, aldi berean, polizia zerbitzua ebaluatzea eta hobetzea ahalbidetzen dutelako¹⁷.

Urte hauetan mota horretako tresnak gomendatu ditugu arazotsuagoak gertatu diren jarduera jakinetan, jaso ditugun kexen arrazoia direlako maiz, hala nola, esaterako, polizia jarduera baten ondorioz sortutako liskarrek eragindako atxiloketetan, hasiera batean bide judizialean hutsegitezat jotzen diren gertaerengatik atxiloketetan eta polizien aurkako atentatu, erresistentzia, desobediencia edo errespeturik ezeko delitu edo hutsegiteak egoztean¹⁸. Adierazi dugunez, gure iritziz, auzibidean halako jardueri buruz egindako kalifikazio eta epaien jarraipena egin behar litzateke, polizia jakin batzueganana pilatzen diren, etab. aztertuz.

Orokorrean, azpimarratu dugu, halaber, beharrezkoa dela poliziek balizko jarduera desegokiengatik jasotzen dituzten salaketa eta kexen kontrol kuantitatibo eta kualitatiboa egitea, baita arrazoi horregatik izapidetutako barne espedienteena ere, halakoak ere polizia jakin batzueganana pilatzen diren, haien arrazoiak, errepikatzen diren, etab. aztertuz.

Eta adierazi dugunez, jasotako datuak, beste batzuekin erkatu behar litzatekeen zantzu bat baino ez badira ere, ezin dira inola ere baztertu edo aztertu gabe utzi beste kexa baten ikerketan.

¹⁷ 7. gomendio zehatza. Ondoren, gaiari buruz jardun dugu “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek araz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendio orokorrean.

¹⁸ Aurrerago itzuliko gara haietako batzuetara.



Halako tresnei buruz galdetzen dugunean ematen zaigun informazioa dela-eta, ulertzen dugu ez direla abiarazi, eta hori oso nabarmena da poliziek jasotzen dituzten kexa eta salaketen kontrolari dagokionez.

Hori dela-eta, errepikatu behar dugu polizia jarduerari buruzko datuak biltzeko adierazitakoak bezalako sistemak ezarri behar direla, aurrerago proposatuko dugunez, jarduera horren ebaluazioa eta jarraipena egin eta, beharrezkoa balitz, dagozkion neurriak hartu ahal izateko.

II.1.3. Arrazoi nahikoa eta jarduerak erregistratzea

“Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan” txostenean, agerian utzi genuen jarduera jakinei dagokienez halako tresnak behar direla¹⁹, uste genuelako bide egokia zela ondoren kontrolatu ahal izateko.

Bertan adierazi genuenak eskubideak mugatzen dituen edozein polizia jardueratarako balio du. Haren arrazoa nahikoa dokumentatu eta eragin duten arrazoi zehatzak behar beste zehaztu behar dira. Arrazoiketan formula orokorrak, hala nola “herritarren segurtasuna” edo “poliziaren zeregina oztopatzea”, erabiltzeari buruz ohartarazi behar dugu, maiz herri-bidean egindako identifikazioak zuritu eta polizia esku-hartze baten lekukoei egoten ez uzteko, hurrenez hurren, erabiltzen diren adierazpenak baitira. Gure aburuz, hitz horiek ez dira onargarriak, ezin baitute uzten jardueraren arrazoi zehatzak ezagutzen ezta, horren ondorioz, hura baloratzen ere.

Gomendio horrek bere garrantzi osoa hartzen du polizia bulegoetatik egindako esku-hartzeak direnean, haiei buruz informazio iturri gutxiago baitago, batez ere identifikazio, miaketa eta norberaren gauzen araketa izapideetan eta indarra erabiltzeari dagokionez, ondorengo ataletan xeheago aztertuko dugunez.

Polizia egoitza kanpo egindako esku-hartzeetan, uste dugu neurria indartzeko dagokion kontrol zentroari polizia esku-hartzearen eta arrazoi berri eman behar litzaiokeela.

II.2. Zenbait jarduera ikuskatzeko berriazko tresnak

Atal honetan polizia egoitza kanpo egindako zenbait jardueraren berriazko kontrol tresna batzuei helduko diegu. Izan ere, ez du ematen egin ditugun gomendioak oraindik abiarazi direnik, administrazioek haiek betetzeari buruz galdetzen dugunean ematen diguten informazioa aintzat hartuz gero. Arazoak errepikatu egiten dira, urtero-urtero haien berri ematen dugu Eusko

¹⁹ 7 eta 8. gomendio zehatzak.



Legebiltzarrarentzako ohiko txostenetan²⁰, eta polizia zerbitzuari buruz jasotzen ditugun kexa askoren jatorria dira.

Aipatu tresnek honako jarduerekin dute zerikusia: indarra erabiltzea, atxiloketak auzibidean lehen unetik hutsegitetzat jotako gertakarietan, erakunde honek "kontrasalaketa" deritzon praktika, eta argiketen eta administrazio salaketen edukia eragiten dituzten egitateei dagokienez, aurreko kontuari oso lotuta baitago.

II.2.1. Indarraren erabilera kontrolatzea

Indarra erabiltzeak azken baliabidea izan behar du beti, legezko egokitasun, premia eta proportzionaltasun printzipioak zorrotz bete²¹, eta arrazoizko epaian oinarritu behar da, hierarkiako gainekoek kontrolatu eta egiaztatuta. Bestalde, jarduera dokumentatu behar da, ondoren neurriaren kontrola egin ahal izateko.

"Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txostenean, honela hitz egin genuen barneko kontrola egin beharraz:

"Komeni da polizia jardueragileak uste duenean bidezkoa dela indarra erabiltzea, obligazioa izan dezala bere erabakia funtsatu duten arrazoiak jasotzeko, eta esateko zehatz-mehatz nola burutu den bere esku-hartzea. Horrela, gizabanakoen eskubideetan eragin handiagoa duten jardueren ondoko kontrola ahalbidetuko litzateke. Arartekoak badaki atestaturik prestatzen den aldi oro, agenteek esaten dutela koakzio fisikoa erabili behar izan duten ala ez. Hala ere, inguruabar hori ere jaso behar da atestaturik ez dagoenean –adibidez, negatiboa gertatzen den droga edukitzeagatiko identifikazio batean- eta, nolana ere, erabilitako indarraren deskripzioa egin behar da, zehatz-mehatz²².

Halaber, txostenean agerian utzi genuen beharrezkoa dela, indarra polizia bulegoetatik kanpo erabiltzen denean, hura izanik egoerarik ohikoena, poliziek dagokien kontrol zentroari euren jardueraren zioak jakinaraztea²³.

Ohikoa da, ordea, ukitutako administrazioen euren aldetik poliziek indarra erabili zutela onartzen den kexetan gomendio horietako lehenengoari buruzko argibideak eskatzen ditugunean, administrazioek erabilitako indarraren balorazioa baino ez bidaltzea, eta ohikoena aipatu legezko printzipioak bete zirela adierazten dute, nolakoa izan zen esan gabe eta gure erantzunari –ea gomendioaren arabera jokatu zen- zehazki erantzun gabe. Gomendioa bete izanaren frogagiriak ere ez dizkigute ematen, halako kexetan bete den egiaztatzeko berariaz eskatzen ditugun arren.

²⁰ Ohiko txostenetako Herrizaingo arloari buruzko sarrerak.

²¹ Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 27ko 4/1992 Lege autonomikoko 34. art.

²² 8. c) 1 gomendio zehatza.

²³ 7. gomendio zehatza.



Bestalde, ikusi ahal izain ditugun argiketetan poliziak adierazi egiten dute indarra erabili behar izan dutela. Baina, orokorrean, jarduera horri buruz ematen dituzten datuak ez dira nahikoak izaten ondoren neurria baloratu ahal izateko.

Kasu batzuetan, gainera, esan digute erabilitako indarraren balorazioa polizia jardueratik eratorritako izapide penalak izapidetu behar dituen auzitegiari dagokiola. Hori egia hutsa da, baina Arartekoak halako kasuetan ez du kexaren ondoren alderdi hori baloratzea, polizia jarduera gertatu zen unean aipatu tresnak erabili ziren jakinaraztea baizik, gure aburuz kontu guztiz bestelakoa baita.

Hori guztia dela-eta, ulertzen dugu ez dela indarraren erabileraren kontrola egiten aipatu gomendioan adierazi genuenaren arabera –hots, erabilitako indarra arrazoizko epai batean oinarritzea, kasu guztietan hierarkiako gainekoek kontrolatu eta egiaztatuta, eta arrazoiei, edukiari eta kontrola burutu den moduari dagokionez behar bezala dokumentatuta geratzea-, eta berriz errepikatu behar dugu gomendioa indarrean dagoela eta administrazioek hura betetzen dela bermatzeko tresnak ezarri behar dituztela.

II.2.2. Auzibidean hasiera batean hutsegitetzat jotako gertakariengatik atxilotzea

Urtero berresten dugu poliziekiko desobedientzia, erresistentzia edo errespetu faltagatik aztertzeke eskatzen zaigun atxiloteta asko auzibidean hasierako unetik hutsegitetzat jotzen direla eta, poliziek horrela baloratu balituzte, ez zuketela atxiloteta eragingo. Era berean, atxiloteta batzuk egoera horretan daude eta ez datoz bat atxiloteta burutu duten poliziei eurei lotutako lege urraketa penalekin, halako kasuak hain ohikoak ez badira ere.

“Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan” izeneko txostenean eta “Polizi kidegoek kontrol-tresnak ezarri beharra, agenteek arauz kanpo jarduten duten kasuetarako” gomendioan arazoaren berri eman genuen. Gogorarazi genuenez, pertsona baten jokabideak maila penala hartuz gero, Prozedura Kriminalaren Legeko 495. artikuluko xedapena zorrotz bete behar da. Haren arabera, ezin da hutsegiteengatik atxilotu, hutsegitea egozten zaion pertsonak bizileku ezaguna ez eduki eta bere balizko erantzukizuna bermatzeko berme nahikorik ez eman ezean.

Agiri bietan utzi genituen agerian Prozedura Kriminalaren Legeko 495. artikulua praktikan aplikatzeak dakartzan zailtasunak, batez ere poliziek erabili beharreko balorazio irizpideak erabakitzeari eta delitua hutsegitetik bereizteko balio lezaketen arau zehatz eta objektiboak ezartzeari dagokienez. Horrexegatik azpimarratu genuen oso garrantzitsua dela egindako atxiloteten gainean prebentzio eta ondorengo kontrol tresnak ezartzea, lege urraketa txiki bategatik askatasunerako funtsezko eskubidea arrazoirik gabe mugatu ahal izatea eta askatasuna kentzea bezalako zigor larria neurritz gain jartzea saihesteko. Atxiloteta burutzen duten polizien kontrako lege urraketa penalengatik atxilotetari dagokionez, honako tresnak proposatu genituen:





"1. Poliziek ohikotzat jo behar dute euren jarduerari buruzko azalpenak ematea, eragindako hiritarrak halaxe eskatzerakoan.

2. Ondoko kalifikazio judizialean faltatzen jotzen diren jokabideengatik atxiloketak galarazteko, joerak hauxe izan behar du: ez dadila izan gatazkan parte hartzen ari den agentea bera erabakia hartuko duena, eta saiatu behar da erabakia bertan dauden beste lankide batzuen esku uzten, edo, bestela, atxilotzeko erabakia zenbait agenteren artean har dadila.

3. Nolanahi ere, jokabidearen larritasunaz inolako zalantzarik izanez gero, askatasunaren alde jokatu behar da. Beraz, poliziek pertsonaren identifikazioa egiteko eta ondoko lokalizaziorako beharrezkoak diren datuak hartuko dituzte, eta ez dute beste ezer egingo.

4. Komeni da (...), gogor egiteagatik, ez obeditzeagatik, agenteak erasotzeagatik edo antzeko arau-hausteengatik, egiten diren atxiloketen kontrol zenbakigarria izatea, eta ikusiko da kopuruak bereziki agente batzuegan edo patruila batzuetan pilatzen diren.

5. Halaber, erabilgarritzat jotzen da honi buruzko ebazpen judizialak aztertzea. Esate baterako, zenbat atestatu pasatzen diren hasieratik faltengatik epaiketak izatera, kondenen proportzioa eta beste" ²⁴.

Gure ustez, proposamen horiek, orokorrean, burutzen dituzten polizien euren aurkako lege urraketek eragindakoak ez ezik, halako edozein atxiloketa saihesteko balio dute.

Gai horri buruz galdetzen dugunean administrazioek ematen diguten informazioa ikusita, uste dugu gomendioan aipatu datuak ez direla ez biltzen ez aztertzen ari.

Horri erantsi behar zaio, baietsi dugunez, oraindik egiten direla atxiloketak auzibidean hasierako unetik hutsegitez jotako lege urraketa penalengatik, eta jakin dugula halako atxiloketa batzuetan jurisdikzio penalak ez zuela hutsegiterik ere sumatu. Beraz, errepikatu behar dugu polizia arduradunek prebentzio eta ondorengo kontrol tresnak ezarri behar dizkietela halako atxiloketei, bai aipatu direnak, bai egokiagoak deritzeten beste batzuk.

II.2.3. Polizien argiketen eta salaketa administratiboen edukia kontrolatzea, horiek eragin dituzten egintzei dagokienez

Azken urteotan zenbait pertsonak jo dute erakunde honetara euren aurka egindako argiketen edukiarekin ados ez daudela adierazteko, haien ustez poliziek ez zutelako

²⁴ "Polizien jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan" izeneko txosteneko 8. e) gomendio zehatza.



zintzotasunez islatu gertatutakoa, euren jarduera eragin zuten gertakariei dagokienez. Halaber, kexa batzuek arazo behar agertu dute poliziek arau-hauste administratiboengatik egindako salaketei buruz²⁵. Erreklamaziogileek horrela lotzen zituzten jokabidea eta poliziek ondoren balizko polizia jarduera desegokia zuritzeko egindako ahalegina edo erakunde honek "kontrasalaketa" deritzona; funtsean, honakoan datza: poliziak, euren esku-hartzeak hura zalantzan jarri duen pertsonak kexa edo salaketa jartzea ekar dezakeela sumatzen dutenean, aurreratu eta haren aurkako salaketa egiten dute.

Oso kezkarria deritzogu halako portaera arbuigarriak gertatzeari. Badakigu ez dela erraza haiei aurka egitea, baina gertatzen direnean polizia eginkizunen gehiegikeria da eta eginkizun horiek betetzeko legezketasun itxuraren pean mozorrotu ohi dira. Jakin badakigu, arazoak sortzen direla arlo horretan gehiegikeria bat egin dela frogatzeko, hain zuzen ere, jardueraren legezketasun itxura horregatik. Horrexegatik jotzen dugu funtsezkotzat polizia arduradunak jakitun izatea ordenamendu juridikoak poliziei argiketa edo administrazio salaketa egiteko ematen dien ahalmena neurritz gain erabil daitekeela eta praktika horiek saihestu eta, gertatuz gero, antzeman ahal izateko kontrol tresnak ezartzea²⁶.

Horri buruz jaso dugun informazioa dela-eta, ulertzen dugu arlo horretan ez dela kontrol tresnarik ezarri eta berriz esan behar dugu egin behar dela.

III. BERMEAK ATXILOKETAN

Konstituzioak zenbait berme aitortzen dizkio atxiloketari; besteak beste, berehala eta era ulergarrian euren eskubideen eta atxiloketaren arrazoen berri jasotzeko eskubidea, aitortzera behartua ez izatea eta abokatuaren laguntza (17.3 art.).

Atal honetan, eskubide eta berme horiei helduko diegu. Izan ere, atxiloketari buruz jasotzen ditugun kexa gehienak haiei buruzkoak dira. Arazoak dakartzaten beste alderdi batzuk ere landuko ditugu, hala nola gorputzaren miaketa, atxiloketa auzitegiari jakinaraztea, jardueren erregistroa, otorduen ordutegiei eta izapideak egiteko lekuei buruzko arauak ezartzea eta bideoz grabatzeko sistemak.

²⁵ Halako kasuetan, askotan, unean bertan jakinarazpena ez egiteko, salaketan islatutako arrazoiaren benetakotasuna jartzen da zalantzan; izan ere, arrazoa "balizko arau-hauslea bertan ez egotea" edo "jakinarazpenari uko egitea" izaten da.

²⁶ Adibidez, gure iritziz aipatu arriskua saihesten laguntzeko oinarrizko eta funtsezko neurria da poliziak banaka agertzea argiketa egin behar duenaren aurrean eta ez denak batera, jaso ditugun datuen arabera maiz egiten denez. Gauza bera esan daiteke arau-hauste administratiboengatik salaketak unean bertan jakinarazteari buruz; izan ere, salatutako pertsonak unean bertan ezagut eta egiazta litzake salatua izateko gertakariak. Baita, beharrezkoa balitz, salaketan une horretan jakinaraztea galarazi duten arrazoi zehatzak idazteari buruz ere. Ezin dira onartu, ordea, kontzeptu orokorrak, hala nola "segurtasuna", zehazten ez badira. Neurri biak oso oinarrizkoak dira, baita beharrezkoak ere. Horrela jokatu ez zen kasuetan horri buruz jarritako kexa espedienteak izapidetzean proposatu ditugulako aipatu ditugu. Zalantzarik gabe, ez dira nahikoak eta polizia arduradunek beste batzuk ezarri beharko dituzte, polizia eginkizunari buruz duten ezagutza hobea eta zuzenagotik abiatuta.



Halako gai batzuk aztertu ziren "Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana" izenekoan ²⁷ inkomunikatutako atxilotetak dakartzan berriazko arazoaren ikuspegitik. Orokorrak direnez, han egin genituen gogoetetako batzuk atxiloteta mota orori daude lotuta, komunikatuak zein inkomunikatuak izan eta, beraz, arestian esan bezala, haiek ere hartuko dira aintzat azterketa honetan.

1. Abokatu-laguntza

Konstituzioko 17.3 artikulua *"atxilotuak izapide polizial eta judizialean abokatuaren laguntza izatea bermatzen du, legeak xedatutakoaren arabera"*.

Abokatuaren laguntza Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikuluan dago araututa. 2.c) idatz-zatian atxilotuari eskubidea aitortzen dio *"abokatu hautatzeko eta aurrean egotea eskatzeko, aitortzeko izapide polizial eta judizialean egon dadin eta jasaten duen nortasun ezagutze orotan esku har dezan"*. Manuak honela xedatzen du eskubide hori:

"4. Atxilotua (...) zein agintari judizial eta funtzionarioen jagoletzapean egon eta agintari eta funtzionario horiek ez diote aholkurik emango abokatuaren hautaketaren inguruan, eta Abokatuen Elkargoari komunikatuko diote, behar bezala hala ager dadin, hark bere laguntzarako izendatu duen abokatuaren izena, edo, bestela, hori ofizioz izendatzeko eskatuko diote. Abokatuen elkargoak hautaketa hori jakinaraziko dio izendatuari, horrek onarpena edo uko egitea adieraz dezan. Izendatuak enkargu hori onartzen ez badu, edo izendatua aurkitzen ez bada, edo agertzen ez bada, Abokatuen Elkargoak ofizioko abokatu izendatuko du. Izendatutako abokatu lehenbailehen joango da atxiloteta-zentrora, eta, edozein kasutan, zortzi orduko gehieneko epean, komunikazioa aipatu elkargoari egiten zaion unetik zenbatuta.

Abokatuen Elkargoari egindako komunikaziotik zortzi gabe letradu bat ere ez bada agertzen atxilotua edo preso dagoen tokira, haren adierazpena jaso edo haren azterketa egin ahal izango da, baldin eta horretarako adostasuna ematen badu, izendatutako abokatuak euren betebeharrak ez betetzeagatik bereganatutako erantzukizunei kalterik egin gabe.

5. Edonola ere, atxilotuak (...) letraduaren nahitaezko laguntzari uko egin ahal izango dio, baldin eta atxiloteta eragin duten egitateak trafiko-segurtasunaren aurkako delitu gisa soil-soilik tipifikatu ahal badira.

6. Abokatuaren laguntza hauxe izango da:

²⁷ Dokumentu horretan, zehazki, honako alderdiak landu genituen: grabaketak, abokatuen laguntza, auzitegiko osasun azterketak, familiari jakinaraztea eta zenbait praktika polizial.



a) Hala denean, atxilotuari (...) artikulua honen 2. zenbakian ezarri eskubideen inguruko informazioa emateko eta f) paragrafoan zehaztutako mediku- azterketa egiteko eskaera egitea.

b) Abokatuak zein eginbidetan esku hartu eta eginbide hori gauzatu duen agintari judizialari edo funtzionarioari eskatzea, behin eginbidea amaituta, komenigarritzat jotako gorabeherak adierazi eta gehitzea, bai eta aktan eginbidea gauzatzean gertatutako edozein intzidentzia jasotzea ere.

c) Atxilotuarekin isil-gordean elkarrizketa izatea, abokatuak zein eginbidetan esku hartu eta eginbide hori amaitzen denean”.

Konstituzioan abokatu-laguntzarako eskubideak dimentsio bi dauzka; izan ere, aldi berean askatasunerako eskubidearen -17.1 artikulua- eta, bidezko prozesuaren berme dago eratuta, 24.2 artikulua ezartzen duen zaintza judizialaren esparruan.

Xede bikoitz hori dela eta, abokatuaren esku-hartzea era batekoa edo bestekoa izango da kasuaren arabera. Konstituzio Auzitegiak askatasunerako eskubidearen bermeaz hitz egin du –horixe da orain dagokigun alderdia-, eta honakoa adierazi du.

“...en el supuesto de detención en primeras diligencias policiales, constitutiva de una situación jurídica en la que la intervención del Letrado responde a la finalidad, de acuerdo con el art. 520 de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, de asegurar, con su presencia personal, que los derechos constitucionales del detenido sean respetados, que no sufra coacción o trato incompatible con su dignidad y libertad de declaración y que tendrá el debido asesoramiento técnico sobre la conducta a observar en los interrogatorios, incluida la de guardar silencio, así como sobre su derecho a comprobar, una vez realizados y concluidos con la presencia activa del Letrado, la fidelidad de lo transcrito en el acta de declaración que se le presenta a la firma”.

(...)

La esencia del derecho del detenido a la asistencia letrada es preciso encontrarlo (...) en la efectividad de la defensa, pues lo que quiere la Constitución es proteger al detenido con la asistencia técnica de un Letrado, que le preste su apoyo moral y ayuda profesional en el momento de su detención”. (Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 11ko 196/1987 epaia, 5. OJ²⁸).

Jakin badakigu Prozedura Kriminalaren Legeak ez duela abokatu-laguntzaren beharra atxilotetaren hasieratik bertatik berariaz ezartzen. Horregatik uste dugu, “Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana” izenekoan adierazi genuenaren ildotik, une horretatik jarri behar litzatekeela eskura

²⁸ “Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana” izenekoan gaiari mintzatu eta Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 11ko 196/1987 epaiaren edukia ere jaso dugu.



laguntza hori, gure iritziz, neurri hori guztiz bat datorrelako eskubide horrek duen xedearekin eta atxilotuaren eskubideei plus bat gehitzea litzatekeelako²⁹.

Eskubide horri dagokionez aurkitzen ditugun arazoetako asko, hain zuzen ere, gauzatzen den uneari buruzkoak dira eta, beraz, uste dugu proposatutako neurriak haiek konpontzeko balioko lukeela.

Abokatu-laguntza emateko luzatzea ere kexarako arrazoia da. Gogoratu behar dugu Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duen 8 orduko epea gehienezkoa dela eta Abokatuen Elkargoari jakinarazten zaion unetik hasten dela zenbatzen. Gure ustez, eskubide hori gauzatzen den denbora erabat beharrezkoa dena baino ez dela izan behar, eta horretarako, atxilotetaren ardura duten poliziek ahalik eta lasterren egin behar liokete eskaera Abokatuen Elkargoari eta, dirudienez, egun zenbait Elkargok eskaeraren berri hura egin orduko izatea galarazten ari diren oztopoak ere kendu behar lirateke³⁰.

Abokatuen Elkargoari edukiaren, egindako unearen eta esku hartu duten pertsonen berri izateko moduan jakinarazi behar litzaioke. Gerta litezkeen gorabehera guztiak ere jaso behar lirateke, eskubide hori bermatu den kontrolatu ahal izateko gero.

Kexak izapidetzerakoan beste arazo bat ikusi dugu: derrigorrezkoa zen kasu batzuetan abokatu-laguntzarik ez egotea, baita atxilotuek beren-beregi eta behin eta berriz eskatu izana ziurtatzen zuten kasuetan ere³¹.

Hori guztia dela-eta, berriz esan behar dugu atxilotuei atxilotetaren lehen unetik abokatu-laguntza bideratzeko behar diren neurriak hartu behar direla. Xede hori lortzeko Abokatuen Elkargoari ahalik eta azkarren egin behar zaio eskaera, eta jakinarazpenaren xehetasunak eta gerta litekeen gorabehera oro jasota geratu behar dira.

Halaber, uste dugu gazteleraz eta euskaraz ez dakiten atzeritarrek abokatu-laguntzarako eskubidea bermatzen duen itzulpen eta interpretazio zerbitzu egokia izateko behar diren neurriak ezarri behar direla.

²⁹ Ildo beretik hitz egin du Estatuko Fiskaltza Nagusiak, honakoa azpimarratu baitu: *“atxilotetak, eta ez atxilotuak aitortzeko izapideak, ezartzen du polizia egoitzan abokatu baten laguntza izan beharra”* (abenduaren 18ko 2/2003 kontsulta). Zentzu berean, Tortura eta Tratu Anker edo Laidogarriak Prebenitzeko Europako Batzordeak (TPB) honakoa gomendatu du: *“Polizia zaintzaren lehen unetik abokatu izateko eskubidea bermatu beharra”* [TPBren arauak, TPB/Inf/E (2002) 1-Rev.2010]. Tortura Prebenitzeko Nazio Tresnak ere egin du, honela adierazita: *“Askatasuna kentzearen hasieraren ondorengo epean abokatu izatea funtsezkoa da tortura eta tratu txarrak prebenitzeko”* (2010eko txostena).

³⁰ Aurten ofiziozko esku-hartze bat egin dugu kasu batean, ez baitzen abokatu-laguntzarik eman, Abokatuen Elkargoari eskatu arren. Polizia erregistroetan ez zen jaso laguntza ezaren arrazoia. Disfuntzio horren arrazoia honakoa izan liteke: eskaera gauzatzeko gertu egin zitzaion zerbitzua kudeatzeko ardura duen enpresari eta hark ezi zion Abokatuen Elkarteari helarazi hurrengo goizeko lehenengo orduetara arte. Gure esku-hartzeak ez du orain arte lortu gertakariak argitzea, neurri batean eta polizia arloari dagokionez, jakinarazpena argiketan baino ez zelako jaso, eta adierazitako datu bakarrak laguntza eskatu izana eta egin zen ordua zirelako.

³¹ 2010eko ohiko txosteneko Herrizaingo arloaren sarreran urte horretan gertatutako kasu baten berri eman dugu.



2. Atxiloketaren zioari eta eskubideei buruzko argibideak

Konstituzioak atxilotu guztiei aitortzen die eskubidea *"berehala eta era ulergarrian bere eskubideen eta atxiloketaren arrazoen berri jasotzeko"* (17.3 art.).

Bestalde, Prozedura Kriminalaren Legeak eskubide hori arautu eta, xedatzen duenez, atxilotu orori *"ulertzeko moduan eta berehala, informazioa emango zaio berari egozten zaizkion egitateei eta askatasunaz gabetzea eragin duten zioei buruz, bai eta hark dituen eskubideei buruz ere"* (502.2 art.).

Auzitegi Gorenak aurtan bertan hitz egin du aipatu arautik eratortzen diren betekizunei buruz, honakoa adieraziz *"hace referencia al derecho a ser informado todo detenido, en primer lugar, de forma inmediata, lo que debe entenderse como el deber de la fuerza actuante de hacerlo lo más pronto posible, dentro del despliegue de su mayor diligencia (...) de los hechos que motivan su detención, requisito sine qua non para ejercitar el derecho de defensa (...). En segundo lugar, ha de ser informado de las razones motivadoras de la privación de libertad, es decir en base a qué precepto se le detiene, y por último, también la información ha de referirse a los derechos que le asisten"*³².

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ere gaiari buruzko iritzia eman du Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmeneko 5.2 artikulua hitz egiterakoan³³, eta haren arabera, manu horrek ematen duen babes sistemak atxilotuari hizkera erraz eta ulergarrian, askatasuna kentzeko arrazoi juridikoen eta faktikoen berri ematera behartzen du³⁴.

Praktikan, izapide hori aldi bitan egin ohi da: atxiloketaren unean –bertan burutzen duten polizia ahoz ematen diote informazioa atxilotuari-, eta polizia bulegoetan –bertan berriz ematen zaio informazioa eta izapidea egin izana jasotzen da eskubideak jakinarazteko aktan-.

Ikusi ahal izan ditugun eskubideak jakinarazteko aktek, orokorrean, atxilotuari egozten zaion delituaren berri eman izana jasotzen dute, baina ez atxiloketa eragin duten egitateen berri eman izana. Polizia arduradunek esan ohi digute eskubideei buruzko jakinarazpena ahoz egin dela, atxilotzeko unean, baina datu hori ezin da egiaztatu, lehenengo jakinarazpen horren edukia ez delako jasotzen; atxiloketa egin duten polizia argiketari egiten duten adierazpen bakarrak dio, orokorrean, atxilotuari atxiloketaren arrazoi eta dauzkan eskubideen berri eman zaiola.

Hori dela-eta, urte hauetan ohartarazi dugu atxilotuei une bietan ematen zaien informazioak egozten zaizkion egitateak eta askatasuna kentzea eragin duten arrazoiak jaso behar dituela, Prozedura Kriminalaren Legeko 520. artikulua

³² Zigor arloko salaren otsailaren 17ko 61/2011 epaia, 1. saila, 1. oinarri juridikoa.

³³ Artikuluak honakoa xedatzen du: "Atxilotu orori jakinarazi behar zaizkio, ahalik eta azkarren eta ulertzen duen hizkuntzan, bera atxilotzeko arrazoiak eta bere aurka egindako edozein akusazio".

³⁴ 1990eko abuztuaren 30eko epaia. Fox, Campbell eta Hartley Erresuma Batuen aurkako kasua.



agintzen duenez, eta ematen den informazioaren edukia behar bezala jaso behar dela.³⁵

Horri dagokionez, uste dugu erabilgarria izan litekeela atxiloketan bertan atxilotuari bere eskubideak eta haiei buruz eman zaion informazioa jasotzen dituen agiri bat ematea.

Ematen diren argibideek ulertzeko modukoak izan behar dute eta atxilotuarentzat erraza eta ulergarria den hizkeran egin behar dira, eta hori oso garrantzitsua da hura atzerritarra denean.

Gazteleraz ulertzen edo hitz egiten ez duten atzerritarrek atxiloketa bitartean interpretatzaile batek doako laguntza emateko eskubidea dute aitortuta [Prozedura Kriminalaren Legeko 520.2 e) art.].

Arestikoa gorabehera, ontzat jotzen dugu eskubideak jakinarazteko aktak autonomia erkidegoan ofizialak diren hizkuntza biez beste hizkuntzetan; gure eskarmentuaren arabera, ematen du praktika hori nahiko zabaldua dago Ertzaintzan eta Arartekoaren esku-hartze eremuan sartzen diren udaltzaingoetan.

Hala ere, uste dugu euskaraz eta gazteleraz ez dakiten atzerritarrek itzulpen eta interpretazio zerbitzu egokia izateko behar diren berme guztiak ezarri behar liratekeela.

Gure aburuz, ulermena mugatzen dien ezgaitasunen bat duten pertsonentzat ere eskubide hori bermatzeko neurri egokiak hartu behar lirateke.

Eskubideak jakinarazteko aktak tarte bat utzi behar luke eskubide bakoitzaren ostean atxilotuak ulertu duen eta erabili nahi duen jasotzeko.

Eskubide horren eraginkortasun osoa bermatzeko, uste dugu, atxilotuari informazio idatzia eman ez ezik, eskubideak jakinarazteko akta emanaz, haiei eta haiek erabiltzeko moduari buruzko ahozko azalpena eman behar litzaiokeela, eta poliziek ziurtatu behar luketela benetan ulertu dituela³⁶.

Era berean, uste dugu atxilotuak akta sinatu behar lukeela, eta sinatu nahi ez balu, agirian bertan geratu behar litzatekeela jasota haren ukoa eta agiri horren kopia bat eman behar litzaiokeela.

³⁵ Ohiko txostenetako Herrizaingo arloaren sarreretan eta txosten horietan jasotako "Ziegak. Udaltzaingoen eta Ertzaintzaren atxiloketa-zentroak" txosten bereziaren jarraipenetan arazoaren berri eman dugu.

³⁶ Atxiloketari buruz, NBEko Batzar Nagusiak 1988ko abenduaren 9ko 43/173 ebazpenean onartutako Atxiloketa edo espetxeratze mota oro jasaten duten pertsona guztien babeserako oinarrietako 13. oinarriak honakoa dio, horri buruz: "Pertsona baten arrastatzearen, atxiloketaren edo preso hartzearen ardura duten agintariek, arrastatzeko unean eta atxiloaldiaren edo espetxealdiaren hasieran edo apur bat geroago, euren eskubideei, zein haiek erabiltzeko moduari buruzko informazioa eta azalpena eman beharko diote".



Polizia bulegoetan ahalik eta lasterren jakinarazi behar lirateke eskubideak, defentsarako eskubideari lotuta dagoelako³⁷ eta informazio horrek atxilotuaren gainerako eskubideen eraginkortasuna bera baldintzatzen duelako.

Bestalde, atxiloketa egiten duten poliziek ez lukete izan behar, orokorrean, atxilotuari polizia bulegoetan bere eskubideen berri ematen diotenean ezta eskubideak jakinarazteko akta sinatzeko ematen diotenak. Gure iritziz, eginkizun horiek polizia desberdinei emateak neutraltasun berme handiagoa dakar; uste dugu neutraltasuna zaindu behar litzatekeela eta zentzu osoa hartzen duela atxiloketen arrazoa atxiloketa egiten duten poliziei eurei lotutako lege urraketa penalak direnean.

3. Atxiloketaren iraupena

Konstituzioko 17.2 artikulua atxiloketaren iraupena arautzen du eta honela dio: *“ezingo du iraun gertakariak argitzeko ikerketak egiteko benetan behar dena baino gehiago eta, edonola ere, hirurogeita hamabi orduren buruan gehienez ere atxilotua askatu edo aginte judizialaren eskuetan utzi beharko da”* (17.2 art.).

Puntu horretan, Prozedura Kriminalaren Legeak Konstituzioko xedapenak errepikatu baino ez du egiten (520.1 art.).

Atxiloketaren iraupenak maiz eragiten ditu kekak, batez ere atzerritarren kasuan; izan ere, haiei dagokienez, atxilotua atzerritarra ez den antzeko beste atxiloketen batez bestekoa nabarmen gainditu ohi da.

Zentzu horretan, dirudienez, kasu gehienetan atzerapena Polizia Nazionalak atxilotuaren nortasuna baieستeko hartzen duen denboragatik gertatzen da.³⁸ *“Poliziaren jarduerak pertsona atzerritarrekin, San Frantziskoko zonan”* izeneko txostenean gaiari buruz idatzi genuen eta honakoa adierazi genuen: *“Ertzaintzak eta Udaltzaingoak saiatu behar dute atxiloketaren iraupena mugatzen ezinbestekoa gertatzen den denborara, eta kanpotarren identitatea egiaztatzeko arazoek ezin dute pertsona horien askatasuna edo epaileen esku uztea atzeratu. Horretarako, komunikaziobide joriak ezarri behar dira Poliziaren Gorputz Nazionalaren Atzerritartasun Brigadarekin”*.

Halaber, honakoa ere kontuan hartu behar zela adierazi genuen: *“Pertsona kanpotar baten legezko dokumentazioak nazional baten dokumentazioaren adinako kontsiderazioa jaso behar du (pasaportea, bizitzeko baimena, e.a.). Beraz, ezin du arau nagusi izan kanpotarra erretentzeak Atzerritartasun Brigadaren txostena iritsi artean”*³⁹.

³⁷ Arestian aipatu dugun otsailaren 17ko 61/2011 epaian, Auzitegi Gorenak uste du eskubide hori EK-ko 24. artikuluan jasota ulertu behar litzatekeela (1. oinarri juridikoa).

³⁸ Arazoaren berri eman genuen 2010eko ohiko txostenean. Jakinarazi genuenez, arazoa herriaren defendatzaileari ere agertu genion, haren eskumen eremuko baita.

³⁹ 8.h) gomendio zehatza.



Berriz azpimarratu behar ditugu alderdi horiek eta beharrezkoa dela atxilotetako izapideak hura egiteak eskatzen duen ezinbesteko denborarik laburrenera mugatzen direla bermatzeko behar diren neurriak hartzea.

Horri buruz, gogoratu behar da EK-k eta Prozedura Kriminalaren Legeak xedatzen duten 72 orduko epea gehienezkoa dela eta atxilotuekin egin beharreko izapideek lehentasun osoa izan behar dutela.

Halaber, gogoratu behar dugu aitortpena hartzeko izapidea (edo hura emateari uko egitekoa) atxilotua askatasunik gabe izatea eskatzen duten ikerketa jarduerak burutzeko behar den denborarik laburrenean egin behar dela

Era berean, uste dugu gertatzen den edozein atzerapen behar bezala jaso behar dela, baita haren arrazoiak ere.

4. Atxiloteta epaitegiari jakinaraztea

Kasu batzuetan berretsi ahal izan dugu epaitegiari egindako jakinarazpena atzeratu egiten dela. Horren aurrean, uste dugu derrigorrezkoa dela ohartaraztea izapide hori ahalik eta lasterren egin behar dela.

Gure iritziz, jakinarazpena auzitegiari atxilotuak itzulpen zerbitzurik behar duen jakinarazteko balia liteke, informazio hori izan dezaten eta une horretatik behar diren neurriak jarri ahal izateko.

5. Gorputza miatzea

“Miaketa pertsonalaren dilijentzia poliziaren bulegoetan” gomendioan⁴⁰aztertu genuen gaia eta adierazi genuen, hari buruzko jurisprudentzia erabiliz, zein diren, gure aburuz, gai horretan erabili behar diren jarraibideak, besteak beste, agirietan miaketa egiteko modua nahikoa jaso beharra, ondoren kontrolatu ahal. Honakoa adierazi genuen:

“1. Atxilotuari biluzarazita egiten den gorputzaren miaketa ezin da ohizko jarduera bat izan, atxilotetetan sistematikoki erabiltzeko. Norberaren intimitatearen eskubideari kalte egiten dion gorputz-kontrola izanik, proportzionaltasun irizpidearekin bat erabaki behar da erabiltzea. Hau da, bidezko helburua lortzeko egokia izan behar du neurriak, beharrezkoa izan behar du -beste neurri arinago eta kalte gutxiago egiten dutenak ezin dira egon-, eskubidearen sakrifizioa lortzen den baliagarritasunarekin bat etor dadin.

⁴⁰ 2001eko ohiko txostena.



Jakina, proportzionaltasun irizpideak gorabeheren azterketa zehatza eskatzen du, eta delitu motari bakarrik begiratzea ez da nahikoa. Zentzu honetan, neurriaren beharra eta neurketa helburuaren mende daude, eta hau zaindutako pertsonaren segurtasunarekin lotzen denean, oinarrizko eskubideei kalte gutxiago egiten dieten baliabideak erabili beharko dira.

2. Kasuaren gorabehera zehatzen azterketa eta proportzionaltasun irizpidetik ateratako ondorioak idatziz jaso beharko dira, eskubideen murrizketaren arrazoi gisa. Arrazoitze hori laburra izan daiteke, baina sekula ere ezin da izan "argudio eredu" baten errepikapen idatzia, Auzitegi Konstituzionalak eskatutako baldintzak modu orokor eta abstraktuan jasotzeko.

3. (...)

Argiketan gorputzaren miaketa egin den modua zehatz-mehatz agertzea komeni litzateke, normalean poliziaren dokumentazioari akta bat eransten zaionez, interesdunak sinatuta, ziegan sartzean kendu dizkioten objektuen zerrendaz, ez du konplikatu ematen akta hori handitzeak, miaketarik egin den eta eginez gero ze jantzi kentzera behartu duten atxilotua".

Proportzionaltasuneko irizpideari buruz honakoa adierazi genuen:

"Helburu bakarra atxilotu beraren eta polizien segurtasuna gordetzea den kasuetan, beharrezko irizpidea zorrotzago bihurtzen da. Biluzia ikerketarako tresna bat ez denez, neurri hori atxilotua oso arriskutsua delako bakarrik onar daiteke, leporatzen zaion delitutik edo atxiloketan izan duen jarreratik ondorioztatu behar da arriskua. Edozein modutan, beste neurri batzuk ere badaude -poliziaren zaingo zorrotzagoa, esate baterako- norberaren intimitatea kaltetua ez izateko".

Erantsi genuenez, atxiloketak *"non poliziei apur bat desobeditzeagatik atxilotuari biluzarazten zaion -gure ustez, eta arau orokor bezala- oso desorekatuak dira, eta intimitate eta integritate moralaren eskubidea neurririk gabe kaltetzen da".*

Azken batean, adierazi genuen *"atxilotuari biluzarazita egiten den araketa ezin da sekula ere izan atxiloketari erantsitako zigor gisa, ezta pertsona atxilotuaren indar morala iraindu edo hondatzeko tresna gisa ere".*

Etengabe egiaztatzen dugu atxiloketa erregistroek ez dutela islatzen, orokorrean, zelan egin zaion atxilotuari gorputzaren miaketa polizia bulegoetan. Jarduketa hori ez da jasota egoten argiketan; bertan, miaketaren ondorioz jasotako ondasunen zerrenda baino ez da jasotzen eta, gehienez ere, adierazten da erregistroa azalekoa ala sakona izan den, azken hori zertan datzan jaso gabe, zenbait maila izan dezakeela dirudien arren. Galdetutako kasu gehienetan ia ezinezkoa gertatu zaigu kasu jakin horretan miaketa sakona zelakoa izan zen jakitea.

Miaketaren inguruabarrak agirietan jasota ez egoteak galarazi digu jakitea, adibidez, zelan egin zen atxilotuak, hain zuzen ere, erabat biluzarazi zutela salatu zuen kasu



batean eta, dauzkagun datuen arabera, ez zirudien horrela jokatzeko ziorik zegoenik⁴¹.

Hori guztia dela-eta, berriz esan behar dugu beharrezkoa dela miaketa egiteko modua, erabat biluztu den eta, modu batean edo bestean zergatik egin den idatziz jasotzea, baita neurriaren proportzionaltasun irizpidea, aipatu gomendioan adierazi genuenaren arabera. Gure aburuz, jasotzea ezinbestekoa da miaketa zelan egin den ziurtasunez jakiteko, ondorengo kontrola egiteko eta horri buruzko informaziorik ezak kontrola egitea ez galarazteko.

Halaber, berriz esan behar dugu arrazoiak zehatzak izan behar direla eta hura burutzeko moduaren deskribapen nahiko eta zehatza jaso behar duela, eta "segurtasuna" bezalako arrazoi orokorrek ez dutela balio, ondoren ezin baita jarduera kontrolatu ezta eragin zuten arrazoi zehatzak ezagutu.

Bestalde, egiaztatu dugunez atxiloketa zentro batzuek darabilten praktikaz ohartarazi behar dugu. Izan ere, orokorrean, atxilotuari arropa guztia erantzartzat diote, barrukoak izan ezik. Gure ustez neurri hori ezin da orokorrean ezarri; aitzitik, miaketa erabat biluziz egiten denean bezalaxe, justifikatuta egon behar du, eta horretarako lehenago inguruabarrak banaka aztertu eta proportzionaltasuna neurtu behar da.

Bukatzeko, gomendagarria da polizia bulegoetan gorputzaren miaketa atxilotua atxilotu eta haraino eraman duten polizia berberak ez egitea. Gure ustez, arau hori batez ere poliziei eurei lotutako lege urraketa penalengatiko atxiloketa kasuetan bete behar da; gure esperientziaren arabera, ordea, hori ez da beti egiten.

Gure iritziz, polizia arduradunek tresna egokiak ezarri behar lituzkete atxilotuei polizia bulegoetan gorputza miatzeko dilijentzia adierazi ditugun arauen arabera izan dadin. Arau horiek atxiloketarako jarraibideetan sartzea tresna egokia litzateke horretarako, gure ustez.

6. Atxiloketan burututako jardueren erregistroa

Atxiloketarekin lotutako erregistroek eta gainerako dokumentuek fideltasun eta zehaztasun osoz islatu behar dute jarduera nola gauzatu den. Xedearen lorpena seriozki kaltetuko litzateke bat ez etortzeak jazotzen badira edo burututako jarduera guztiak, noiz (ordua) burutu diren, bertan parte hartu edo esku hartu duten agenteak eta non (lekua) burutu diren behar bezala adierazten ez bada edo, azken batean, jarduera jakin batzuk zertan zeutzan adierazten ez bada eta horien aipamen orokorra bakarrik egiten bada.

⁴¹ Kasu horri buruzko xehetasun gehiago daude 2006ko ohiko txosteneko Herrizaingo sailaren sarreran.



Atxiloketa-zentroetan egin ditugun bisitaldiei esker, alor horretan dauden zenbait disfuntzio antzeman ahal izan ditugu. Esate baterako, zenbait atxiloketa aztertu ditugu zeinetan, orduei eta gauzatutako ekintzei dagokienez, erregistro ezberdinetan jasotakoa ez zetorren bat. Era berean, kasu horietan, atxilotutako pertsonekin egindako jarduera batzuei dagokienez, ez zen jasota utzi zein aretotan gauzatu ziren, ezta jarduera horietan esku hartu zuten agente guztiak nor ziren ere. Horrez gain, eginbide jakin batzuk orokorrean soilik islatu ziren, alegia, kasu bakoitzean zein eginbide gauzatu zen zehaztu gabe. Zenbait atxiloketetan inguruabar horiek batera aurkitu genituen.

Hori dela eta, errepikatu behar dugu atxiloketari lotutako erregistro eta izapide guztiak betetzerakoan arreta handia jarri behar dela. Modu horretan, xehetasunak ahalik eta modu zehatzenean islatuko dira eta orduei eta garatutako jardueri dagokienez bat ez etortzeak saihestuko dira. Atxiloketa-liburuan beti adierazi beharko litzateke zer berariazko eginbide eta zer jarduera burutu diren eta non burutu diren -atxilotua ziegatetik ateratzen denean eginbide edo jarduerok egiteko zein polizia-bulegotara eraman den adieraziz-, baita jarduera bakoitzean parte hartzen duten agente guztiak ere.

Gure ikuspuntuaren arabera, helburu hori betetzen dela bermatzeko halabeharrezko neurriak hartu beharko lirateke⁴².

7. Otorduen ordutegiari eta jarduerak burutzen diren lekuei buruzko irizpideak ezarri beharra

Atxiloketa-zentroetan egindako bisitaldiei esker honako hau ere jakin dugu: zenbait kasutan, elikadurari (gosaria, bazkaria eta afaria) buruzko ohiko jarraibideak errespetatu beharrean, atxilotutako pertsona ordu desberdinetan atera dute gelaxkatik eguneko otorduak egiteko eta ez dago argi zenbatetan eman dioten jaten. Dirudenez, ez dago horretarako justifikaziorik.

Hala, adibidez, ikusi ahal izan genuen kasu batean afaria goizaldean eman zela eta gosaria, berriz, egun bereko goizeko lehenengo orduetan eta bi otorduen artean atxilotua gelaxkatik atera zuten botika eman ziezaioten. Antzerako jarraibideak erakusten zituen beste kasu batean, adibidez, erregistroan bi bazkari eta bi afari ageri ziren.

Gure ustez, praktika mota horiek gaueko atsedenaldea murrizten dute eta atxilotuak atsedeen hartzeko eskubidea dauka. Ia jarraian egindako interferentzia hori onargarria izango litzateke justifikazioa edukiko balu baina, adierazi dugun moduan, aipatutako kasuetan ez zegoen justifikatuta.

⁴² "Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak" izenekoan kontu hori ere jorratu dugu.



Modu berean, honako hau ere ikusi ahal izan dugu: zenbait atxiloketatan atxilotuari jaten ematen zioten bai horretarako prestatua dagoen gelan (bertan ez dago grabazio-kamerarik), bai deklarazio gelan (bertan kamerak daude) inolako lehenetasun edo arrazoirik gabe, baita zaintzako arduradunarekin ere; eta ez zizkiguten irizpide aldaketa horren arrazoiak azaldu, ezta ohiko jarraibideak ez betetzeko arrazoiak ere.

Jarduera horiek saiheste aldera, uste dugu poliziaren arduradunek atxilotuei eman behar zaizkien otordu kopuruari eta ordutegiari buruzko irizpide orokorrak ezarri beharko lituzketela, esparru hori arautzen duten ohiko irizpideak kontuan hartuta⁴³. Era berean, iruditzen zaigu, irizpideok aintzat hartzen ez badira, hartutako erabakia justifikatu beharko litzatekeela eta justifikazioa jasota geratu beharko litzatekeela⁴⁴. Horrez gain, erlijioagatik edo moralezko sinesmenak direla-eta atxilotutako pertsonen elikadurari dagokionez dituzten ohiturak errespetatu beharko lirateke.

8. Bideoz grabatzeko sistema

Erakunde honek hainbat bider adierazi duen moduan, atxiloketaren grabazioak aurrerapauso handia dakar atxilotuen osotasunaren eta duintasunaren aurkako jardunbideen prebentzian eta tresna egokia da eremu horretan izan daitezkeen jarduera irregularrak argitzeko eta polizia funtzionarioak, jaso daitezkeen oinarriak gabeko kexa edo salaketen aurrean, babesteko.

Urriaren 6ko 81/1999 Gomendioan,⁴⁵ kontu hori aztertu genuen eta ondorioztatu genuen, era horretako etengabeko kontroleko sistema bat eraginkorra izan dadin, gutxienez, honako baldintza hauek bete behar dituela⁴⁶:

- a) Grabazioen arduraduna den pertsona atxiloketak gauzaten eta atxilotuak zaintzen dituzten unitateen jardunarekiko eta antolaketarekiko independentea izatea eta grabatutako materiala sistematikoki gainbegiratzea.
- b) Grabatutako materiala, grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epealdia errespetatzeko nahikoa denboraz gordeko dela bermatzea eta, orobat,

⁴³ Nazio Batuen "Poliziarentzako giza eskubideei buruzko gidaliburu zabaldua" (2003) izenekoan, gomendatzen da, hala nola, otorduak ordu zehatzetan eman eta gosariaren eta afariaren artean 15 ordu baino gehiago pasatzen ez uztea.

⁴⁴ "Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak" izenekoan kontu hori ere jorratu dugu.

⁴⁵ Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari berriaz zuzendutako gomendioa (1999ko urteko txostena). Horren edukia Udaltzaingoari aplikatu dakiokela ulertzen dugu.

⁴⁶ Horrez gain, gomendioan adierazi genuen zehaztu behar zela zein pertsonak edo batzordek aukeratuko zuen zer atxiloketa grabatu. Ez dugu gutxienezko baldintzen artean sartu ezarri diren grabazio-sistemak atxiloketa guztiak grabatzen dituztelako, hortaz, baliorik gabe geratu da.



kontuan hartzea giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (Ararteko erakundeak, besteak beste) esku hartzeko duten epea.

- c) Erregistro bat sortzea, agiri bidez jasota gera daitezen egindako grabazioak, baita grabazioak ikustean nabaritu diren gorabeherak ere, halakorik izan bada. Horrela, erakunde honek edo eskubideak babesten dituzten beste erakunde batzuek sistemaren funtzionamendu orokorrari buruzko informazioa lortu ahal izango dute.

Ohiko txostenetan baldintza horien inguruan antzeman ditugun arazoen berri eman dugu eta, oro har, egiaztatu dugu ez direla betetzen⁴⁷.

Berriki, horri buruz aritu gara "Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak" agirian, eta zenbait hobekuntza proposatu ditugu.

Laburbilduz, agiri horretan adierazi dugu sistemak honako baldintza hauek bete behar dituela: a) grabazioa atxilotetaren unean bertan hastea; b) poliziaren bulegoko gela, atxiloteta-eremu eta polizia-agenteen eta atxilotuaren arteko elkarrekintzak gertatzen diren leku guztiak barne hartzea, atxilotuak bere intimitatea babesteko aurkakoa esaten ez badu behintzat; c) irudiak eta soinua gaineratzea; d) defentsaren eta giza eskubideak bermatzeko erakundeen esku egotea; eta e) gomendioan ezarri genituen gutxieneko eskakizunak aintzat hartzea.

Grabatutako materialaren iraupena bereziki azpimarratu nahi dugu, hainbat bider horren inguruan arreta deitu dugu-eta; izan ere, epe hori egokia izan behar da, grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epealdia errespetatzeko nahikoa denboraz gordeko dela bermatu behar da eta, orobat, giza eskubideak bermatzeaz arduratzen diren erakundeek (Ararteko erakundeak, besteak beste) esku hartzeko duten epea aintzat hartu behar da. Beharrezkoa da, gainera, aipaturiko eremuetan esku-hartzerik izan bada horiek irauten duten bitartean grabazioak gordeta egongo direla bermatzea.

Kontserbazio epearen bermea ez bada errespetatzen, bidegrabazio-sistemak ez du bere funtzioa betetzeko balio izango aurreko kasu batean agerian jarri zen moduan; izan ere, kasu horretan, ez erakunde honek, ezta zenbait atxilotu aurkeztu zuten usteko tratu txarren ondoriozko salaketak izapidetzeko ardura zuen epaitegiak ere, ezin izan genituen grabazioak ikusi, adierazi zigutenaren arabera, 3 hilabete pasa ostean ezabatu zituztelako⁴⁸.

⁴⁷ 2006ko urteko txostenaren herrizaingoaren gaineko alorraren sarreran, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak gomendioa betetzeari buruzko balorazioa topatu daiteke. Atal berean eta "Ziegak. Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren atxiloteta-zentroak" txosten bereziaren jarraipenari dagokion atalean, 2005. urtea baino lehenagoko txostenetan, ezaugarri horiek dituzten eta ikusi ditugun atxiloteta egoitzetan ezarritako sistemari buruz egin genuen balorazioa ere ikus daiteke.

⁴⁸ 2010eko urteko txostenean, Herrizaingo Sailaren gaineko atalaren sarreran, kasu horri buruzko xehetasun gehiago aurkitu daitezke.



Bestalde, urteetan zehar egiaztatu ditugun bidegrabazio-sistema asko nahiko zailak dira ikusteko orduan eta, gure aburuz, horrek grabazioen ondorengo kontrola zailago bihurtzen dute eskubideak bermatzen dituzten erakundeentzat. Hori dela eta, hobekuntzak gaineratzearen bideragarritasuna aztertzeko gomendatu beharra dugu. Hobekuntza horiek grabatutako materiala ostean modu errazean eta eskuragarrian ikustea ahalbidetu beharko lukete.

IV. INDARRA ERABILTZEA

Gizarte demokratiko batean, hiri-esparrua zirkulazio eremu bat izateaz gain, parte hartzeko eremu bat ere bada⁴⁹. Konstituzioaren 21. artikuluan elkartzeko eskubidea aitortu da *“es una manifestación colectiva de la libertad de expresión ejercitada a través de una asociación transitoria (y) opera a modo de técnica instrumental puesta al servicio del intercambio o exposición de ideas, la defensa de intereses o la publicidad de problemas o reivindicaciones, constituyendo, por lo tanto, un cauce del principio democrático participativo, cuyos elementos configuradores son, según la opinión dominante, el subjetivo —una agrupación de personas—, el temporal —su duración transitoria—, el finalístico —licitud de la finalidad— y el real u objetivo —lugar de celebración—”*⁵⁰.

Beraz, elkartzeko eskubidea eta adierazpen-askatasuna hertsiki lotuta daude. Herritarren parte-hartzearen inguruan poliziak egiten duen kudeaketak ez du oinarrizko eskubide horien gauzatzea oztopatu behar guztiz derrigorrezkoa dena gaindituz. Ondorioz, gizarte mobilizazioen kasuan, poliziaren erantzuna manifestarien jarrerara egokitu behar da, hirugarrenentzako arriskua barne hartzen duten jarrera bortitzak eta indarkeria aktiboaren aurkako printzipioak erakusten dituzten portaerak nahitaez bereiziz. Zentzu horretan, aginpideek kolokan dauden interesak haztatu behar dituzte, prebentzioaren garrantzia azpimarratuz eta manifestariekin bitartekotza erraztuz ‘ordena koproduzitzeko’⁵¹.

Kontrol mekanismoei buruzko atalean adierazi dugun bezala (II.2.1.), indarra erabiltzea azken baliabidea izan behar da eta legeak ezartzen dituen aplikazio printzipioak modu hertsian errespetatu behar ditu.

Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko maiatzaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak ezartzen du polizia funtzionarioek modu honetan jardun behar dutela euren eginkizunak gauzatzekoan: *“beharrezko erabakitasunez eta berandutu gabe, horren arabera denean kalte larri, berehalako eta konponezin bat saihestea;*

⁴⁹ Maiatzaren 8ko 66/1995 AGE, 3. oinarri juridikoa.

⁵⁰ Apirilaren 28ko 88/1988 AGE, 3. oinarri juridikoa.

⁵¹ Zentzu horretan, Gary T. Marx (1998), “Some reflections on the democratic policing of demonstrations”, *Policing Protest* izenekoan. *The control of mass demonstrations in Western democracies* (Donatella della Porta y Herbert Reiter ed.), University of Minnesota Press, 253-269 orrialdeak.



jarduterakoan, gainera, kongruentzia, egokiera eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan” [5.2.c) art.].

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak printzipio hori berretsi egiten du, kideek, beren eginkizunak gauzatzean, honela jardun behar dutela xedatzen baitu: *“beharrezko erabakitasunez, indarrak arazoizkoa dena baino harago baliatu gabe; gainera, egokitzapen, premia eta proportzionaltasun irizpideek gidatuko dituzte beren eskura dauden baliabideak erabiltzerakoan”* (34.1. art.).

Konstituzioko jurisprudenziaren arabera, proportzionaltasunaren printzipioa errespetatzeko, oro har, hartzen den neurriak honako baldintza hauek bete behar ditu: a) lortu nahi den helbururako egokia izatea (egokitasun printzipioa); b) beharrezkoa izatea, hau da, egokitasunari dagokionez berdina den eta xede bera lortzeko horren garestia ez den beste neurririk ez egotea (beharraren printzipioa); eta c) neurri horrekin interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago sortzea estualdian dauden ondasun edo baloreen gainean eragozpenak baino (proportzionaltasunaren printzipioa zentzu hertsian)⁵².

Proportzionaltasun printzipioa indarra erabiltzeari aplikatzeko, erabaki hori egokia izan behar da lortu nahi den helburua erdiesteko. Modu berean, horrek esan nahiko du, helburu hori erdieste aldera, ez dagoela horren garestia ez den eta egokia den beste neurririk eta neurri horrek ez duela saihesten dituenak baino kalte larriagorik eragiten.

Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.

Hori dela eta, kasu bakoitzean bat egiten duten inguruabar zehatz guztiak zehaztasunez ezagutzea funtsezkoa da indarra barne hartu behar izan duen poliziaren jarduerara bakoitza baloratu ahal izateko. Horregatik, indarra erabiltzea kontrolatzeko mekanismo zehatzak aztertzerakoan agerian jarri duguna errepikatu dugu, hau da, neurriaren legekotatasunari buruzko epaiketa egiteko beharrezkoak diren elementu guztiak behar bezala dokumentatu behar direla.

Era berean, azpimarratu behar dugu indarra erabiltzea, istiluak konpontzeko neurri gisa, ahal den guztietan saihesten duten konponbide berriak aztertzea egokia dela. Ikuspuntu horretatik, uste dugu erabilgarria izango litzatekeela polizia-agenteei bitartekotza tekniken eta gatazkak konpontzeko modu alternatiboen arloan prestakuntza jasoko balute, bai eta lan horretan espezializatu diren lan taldeak ezartzea ere. Hori guztia bitartekotza mekanismoak jarri eta sustatzeko moduan egon daitezkeen, esku-hartze batean gerta daitezkeen tentsio-egoerak desagerrarazteko asmoz.

⁵² Adibide gisa urtarrilaren 16ko 11/2006 AGE aipatu dezakegu (AKE 2006\11); aipatutako printzipioaren gaineko konstituzio doktrina laburtzen baitu.



Herritarren Segurtasuna Babesteko otsailaren 21eko 171992 Lege Organikoak segurtasun indar eta kidegoei baimena ematen die igarotze publikoko tokietan gauzatzen diren bilerak eta manifestazioak *“kalterik txikiena eragiteko moduan”* desegiteko, betiere, pertsona eta ondasunen gaineko arriskuarekin ordena publikoan arazoak sortzen dituztenean (16.2. artikulua, biltzeko eskubidea arautzen duen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 5. artikuluekin lotutakoa); horrez gain, Konstituzioak ezarritako biltzeko eta manifestatzeko eskubideen gauzatzearen aldeko interpretazioa egin beharko litzateke.

V. POLIZIA UNIFORMEAN NORBERA IDENTIFIKATZEKO ZENBAKIA EDO ERREFERENTZIA JARTZEA

“Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak” agirian egin genuen gomendioetako bat hauxe izan zen: polizia-agenteek uniformean identifikatzea ahalbidetzen duen zenbaki edo erreferentzia bat edukitzea inkomunikazio erregimenean atxilotutako pertsonen zaintza burutu bitartean⁵³.

Bertan adierazi genuen bezala, uniformean identifikazio profesionaleko zenbakia eramatea Estatuaren Administrazioaren eta beste administrazio batzuen menpe dauden Segurtasun Indar eta Kidegoentzat ezarritako betebeharrak orokorra da⁵⁴.

Guk dakigunaren arabera, gure lurralde eremuan ez dago mota horretako betebeharririk ezartzen duen antzerako araurik. Hala ere, zenbait tokiko polizia kidegok identifikazio zenbakia daramate uniformean⁵⁵. Beste batzuk, berriz, ez dute eramaten baina, eurek esandakoaren arabera, arazorik gabe eramateko prest egongo lirateke. Dena den, betebeharra polizia kidego guztiak barne hartzen dituen arau orokor batean jasotzeko eskatu dute. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak adierazi du ez dagoela ados neurri hori Ertzaintzan ezartzearekin; izan ere, bere aburuz, hori arriskutsua izango litzateke kideen segurtasunerako.

Erakunde honek badaki zeintzuk diren Herrizaingo Sailak aipatu dituen segurtasun arazoak eta hala adierazi du behin baino gehiagotan. Dena den, aurretik ere adierazi dugun moduan, uste dugu segurtasun arazoak ezin direla oztopo bat izan neurria aplikatu dadila. Gure ikuspuntuari jarraiki, arazo horiek esanahi publikoa ez duten

⁵³ Halaber, Nazio Batuen “Polizientzako giza eskubideei buruzko gidaliburu zabaldua” (2003) izenekoan gomendatzen da atxilotetan zehar une oro begi-bistan dagoen identifikazio bereizgarri bat soinean eramatea.

⁵⁴ Betebeharra Estatuaren Administrazioaren menpe dauden segurtasun indar eta kidego guztiei aplikatu behar zaie (abenduaren 4ko 1484/1987 Errege Dekretuak Polizia Kidego Nazionalarentzat ezarri zuen eta Estatu Segurtasun Idazkaritzaren azaroaren 14ko 13/2007 Instrukzioak Guardia Zibileraren zabaldu zuen). Beste polizia kidego batzuentzat ere artikulatu da, hala nola, Kataluniako polizia autonomikoa (azaroaren 4ko 217/2008 Dekretu autonomikoaren artikulua bakarra) eta Asturiasko (martxoaren 23ko 2/2007 Lege autonomikoaren 7. artikulua), Gaztela eta Leongo (apirilaren 8ko 9/2003 Lege autonomikoaren 9. artikulua), Gaztela-Mantxako (maiatzaren 23ko 8/2002 Lege autonomikoaren 16. artikulua) eta Nafarroako (urtarrilaren 25eko 8/1990 Foru Dekretuaren 8. artikulua) tokiko polizia.

⁵⁵ Hiriburuei dagokienez eta euren informazio propioari jarraiki, Donostiako eta Gasteizko Udaltzaingoen kasua da hori.



identifikazio sistemen erabileraren bidez konpondu ahalko lirateke. Sistemak aldakorak izan daitezke baina barrukoei une oro nori dagozkion jakiteko aukera eman behar die⁵⁶.

Agerian jarri behar dugu ere, zenbait tokiko polizia eskatu duten moduan, neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten polizia kidego guztiak barne hartzen dituen arau orokor batean jasotzearen aldekoak garena. Horrelako betebeharrak lege maila duen arau batek besterik ezin du ezarri, beraz, gure ustez, gaur egun izapidetzen ari den Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeako Legearen aurreproiektua –Herrizaingo Sailaren informazio publikoarekin bat eginez, Eusko Jaurlaritzak orain dela gutxi onartu du eta akreditazio profesionalaren inguruko xedapen bat barne hartzen du⁵⁷- eskari horri bide emateko aukera ezin hobea da.

Bitartean, administrazio bakoitzak betebeharrak haren eskumenen eremuan ezarri beharko luke, polizia-agenteen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak erabiliz.

Gure ikusmoldearen arabera, neurri hori funtsezkoa da herritarrek polizia-agentek identifikatzeko duten eskubidea bermatzeko. Horrela, ez lukete identifikatzeko berariaz eskatu beharko eta eskaera mota horiek eragiten dituzten tentsioak saihestuko lirateke. Horrez gain, jarduera oker posibleen aurrean prebentzio izaera nabarmena dauka eta, aldi berean, jarduera jakin bat arduradunen identifikaziorik ezaren ondorioz zigorrik gabe geratzea eragotziko litzateke, antza, aurten ezagutu dugun kasu batean gertatu den moduan⁵⁸.

VI. ATZERRITAR JATORRIA DUTEN PERTSONEKIN JARDUERA DISKRIMINATZAILEAK SAIHESTEKO TRESNAK EZARTZEA

1. Identifikazio kontrolak

Azken hilabeteetan, immigrazioaren arloan lan egiten duten zenbait elkarte eta erakundeek euren kezka helarazi digute; izan ere, gero eta ohikoagoak dira jatorri atzerritarra duten pertsonen identifikazio kontrolak, dirudienez, pertsona horiek bildu ohi diren tokietan⁵⁹ eta bizi diren auzoetan. Halaber, kezkatuta daude ere kontrol horietan tokiko poliziaren zenbait kidegok parte hartzen dutelako eta euren

⁵⁶ "Poliziaren jarduerak San Frantzisko eremuan" gaiari buruzko txostena [8.b).3. gomendio zehatza] eta "Inkomunikatutako atxilotetaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak".

⁵⁷ Irekia.

⁵⁸ Mota horretako neurrien prebentzio izaera Amnistia Internazionala erakundeak azpimarratu zuen "Gatza zaurian: Poliziaren zigorgabetasuna bi urte eta gero" (2009) izeneko txostenean. Bertan, zera adierazi zen "*legea betearazteko ardurak duten polizia-agenteen eskutik tortura eta beste tratu txar batzuk eragozteko lagungarriak dira; izan ere, ezein polizia-agentek ezin du anonimotasunak eskaintzen duen babespean jardun*". Txostenean zera eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari: "*Ertzaintzako agente guztiek uniformean euren izena edo zenbakia argi eta garbi ikusteko moduan eraman dezaten une oro; horrela, edozein pertsonak identifikatu ahalko ditu informazio hori berariaz eskatu gabe*".

⁵⁹ Hala nola, etorkinei arreta osoa eskaintzen dien zentro baten sarrera nagusian eta bertara joateko bideetan, bazkaltzeko orduan, hau da, erabiltzaile gehien dagoen unean.



ustez, jarduera horiek arraza-bereizgarriak aintzat hartuta egiten direlako, beraz, diskriminatzailetzat jo daitezke. Kontrol horietako batean kale baten zati bat lokarritu inguratu zuten bi orduz eta hori, erreklamazioa aurkeztu zuen elkartearen aburuz, gehiegizko neurri bat izateaz gain, eremu hori estigmatizatzeko modu bat ere bada.

Aipatutako erakundeetako batek etengabeko kontrolek eragiten dituzten egoerek pertsona horien integrazioan duten eragin negatiboa azpimarratu zuen.

Oro har kontrol operatibo horiek polizia nazionalaren esku daude eta kidego horren gainbegiratzea ez dagokio Ararteko erakundeari, beraz, kasu horietan, gure esku-hartzeak operatibo horietan udaltzainen jarduera bakarrik har dezake kontuan, hortaz, polizia nazionalari buruzko kexa gure homologoa den erakundeari bidaltzen diogu. Kontrol operatibo horietan euren esku-hartzea justifikatze aldera, zenbait tokiko polizia kidegok eman dizkiguten azalpenak ikusita, ematen du immigrazio orokorra eta delinkuentzia, herritarren segurtasunik eza eta kontrolak hizpide duen eremuko bizikidetzaren degradazioaren arteko lotura ezarri nahi dutela.

Orokortze horiei dagokienez, arreta deitu beharra dugu; izan ere, jatorri atzerritarra duten pertsonen irudiari kalte egiten diote eta etorkinei buruzko aurreiritziak eta estereotipoak sendotzen dituzte eta horrek, beste noizbait adierazi dugun moduan⁶⁰, ez dio gizarte bizikidetzari inolako mesederik egiten. Zenbait taldetako kideak ere susmagarri bihurtzen dituztela uste dugu bertako kide izateagatik besterik ez.

Ezin dugu onartu mota horretako arrazoiak, besterik gabe, atzerritarrekiko hainbat jarduera polizial legezko bihurtzeko oinarri izatea, eta azpimarratu behar dugu, kasu bakoitzean, jardueraren helburu diren pertsonen jatorria edo itxura fisiko zehatza jardueraren xedearen ikuspuntutik garrantzitsuak direla.

Justifikazioaren eskaerak gero eta handiagoak izan behar direla uste dugu poliziaren esku-hartzetik ondorioztatzen den eskubideen eragina biziagoa eta orokorragoa den heinean.

Une honetan beharrezkotzat jotzen dugu Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren Giza Eskubideen Batzordeak⁶¹ hartu zuen jarrera Polizia Nazionalaren identifikazio eskaera baten inguruan, baztertzailatzat jo baitzuen⁶². Batzordeak legezkotzat jo zuen *"identifikazio kontrol orokorrak egitea herritarren segurtasuna babesteko, delitua ekiditeko edo immigrazio ilegala kontrolatzeko"*. Baina aldi berean, zera adierazi zuen: *"agintariek kontrol horiek burutzen dituztenean, aztertuko diren pertsonen ezaugarri fisikoak edo etnikoak ez dira kontuan hartuko euren ustezko egoera ilegalaren seinale gisa. Era berean, ezin dira zuzendu itxura fisiko edo etniko jakin batzuk dituzten pertsonen bakarrik. Kontrakoa eginez gero, eragindako pertsonen duintasuna kaltetzeaz gain, herritarren artean orokorrean jarrera xenofoboak sustatuko lirarteke eta kontraesankorra liteke arraza bazterkeriaren aurka borrokatzen duen politika eraginkorrenekin"* (7.2. idatz-zatia).

⁶⁰"San Frantzisko eremuan atzerritarrekin burututako jarduera polizialak" gaiari buruzko txostena.

⁶¹ Giza Eskubideen Batzordea aditu independenteek osatutako organoa da eta estatu kideek Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna ezartzen duten ikuskatzen du.

⁶² 2009ko uztailaren 27an onartutako txostena, 1493/2006 zenbakiko komunikazioari dagokionez.



Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Batzordea ⁶³, halaber, gaiaren inguruan mintzatu da eta Arrazagatiko Bereizkeria Era Guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioan parte hartu duten estatuei neurriak har ditzaten gomendatu die itxura fisikoa, kolorea edo arraza zein etnia talde baten kide izatea oinarri bakartzat hartzen dituzten polizia jarduerak saihesteko (31. gomendio orokorra, 20. idatz-zatia)⁶⁴.

2011. urtean batzordeak Espainiak aurkeztutako txostenei buruzko gogoetak onartu zituen⁶⁵, eta identifikazio kontrolei buruz honako hau adierazi zuen:

“Batzordeak kezkarritzat jo du profil etnikoetan eta arrazan oinarritzen diren eta atzeritarren kontzentrazio altua dauden toki publikoetan eta auzoetan egiten diren identifikazio kontrolen edo poliziaren sarekaden inguruan jaso duen informazioa, helburua estatuan modu irregularrean dauden etorkinak atxilotzea bada ere (2., 5. eta 7. artikulua).

31. zenbakiko gomendio orokorra gogora ekarriz (2005), Batzordeak estatu kideari eskatu nahi dio neurri eraginkorrak hartu ditzan etnien eta arrazan oinarritutako identifikazio kontrolak errotik desagerrarazteko. (...). Batzordeak estatu kideari gogorarazi nahi dio ere, 13. zenbakiko gomendio orokorrari (1993) jarraiki, legea aplikatzeko ardura duten funtzionarioek giza eskubideei buruzko prestakuntza trinkoa jaso behar dutela, euren funtzioen betetzean zehar, pertsona guztien oinarritzko eskubideak errespetatzen eta babesten dituztela bermatze aldera, arraza, kolorea, jatorri etnikoa edo nazionala bezalako arrazoiengatik baztertu gabe (10. idatz-zatia).

Aurten Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) adierazi du *“atzeritar asko dauden auzoetan arrazoi argirik gabe nortasun agiriaren kontrolak gero eta ugariagoak izateagatik aurkeztutako txostenengatiko kezka”*. Polizia jardueretan profil etnikoak ezartzeak hainbat talde etnikoen aurkako aurreiritziak eta estereotipoak indartzen dituela eta arrazakeria eta arraza bazterkeria legeztatzen dituela azpimarratu du. Modu berean, polizia kideei bazterkeria alorreko prestakuntza eskaintzea beharrezkoa izan dadila gomendatu du ⁶⁶.

Praktika mota horiek prebenitzeko, batzordeak egin dituen gomendioen artean honako hauek aipatu nahi ditugu: a) Arraza-profilen eraketa ikertu⁶⁷ eta poliziaren jarduerak gainbegiratu mota horretako praktikak identifikatze aldera. Kasu garrantzitsuenetan, jatorri nazionala edo etnikoa, hizkuntza, erlijioa eta

⁶³ Arraza Bereizkeria Ezabatzeko Batzordea estatu kideen eskutik [Arrazagatiko Bereizkeria Era Guztiak Ezabatzeari buruzko Nazioarteko Konbentzioaren](#) aplikazioa gainbegiratzen duen [aditu independenteen](#) organoa da.

⁶⁴ 2005. urtea.

⁶⁵ 2011ko martxoaren 9an onartutako 18-20 aldizkako txostenen gaineko gogoetak.

⁶⁶ Espainiari buruzko laugarren txostena, 2011ko otsailaren 8an argitaratuta, 201. idatz-zatia eta hurrengoak...

⁶⁷ Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) *“arrazan oinarritutako profilak egitea”* honela definitzen du: indar polizialek, justifikazio objektibo edo zentzudunik gabe, arraza, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea edo jatorri nazionala edo etnikoa bezalako oinarriak erabiltzea kontrol, zainketa edo ikerketa jarduerak burutzeko (11. zenbakiko gomendioa).



nazionalitatea bezalako faktoretan oinarritutako datuak bilduz; b) honako hau azpimarratu: poliziaren kontrol, zainketa edo ikerketa jarduerak soilik jarri daitezke abian irizpide objektiboak oinarri hartuta; eta c) polizia-agenteeek giza eskubideen (orokorrean) inguruko prestakuntza behar dute, arrazakeriarik eta arrazagatiko bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea barne, bai eta arraza-profilak egiteari buruzko prestakuntza ere⁶⁸.

Erakunde hau kezkatuta dago ere estereotipotan edo pertsonen kanpoko zenbait ezaugarritan bakarrik oinarrituta dauden jarduera baztertzailerak burutu daitezkeelako. "San Frantzisko eremuko atzerritarrekiko polizia jarduerak" izeneko txostenean hori aipatu dugu eta poliziaren esku-hartzeak zehatz-mehatz arrazoitze beharra bereziki nabarmendu dugu; izan ere, arrazoiak zehaztea ezinbestekoa iruditzen zaigu jardueren zergatia ulertzeko eta baloratzeko. Halaber, polizia agenteen prestakuntzak duen garrantzia azpimarratu dugu⁶⁹.

Gure ustez, are kezagarriagoa da jarduera horiek alde aurretik mugatutako zona bateko ohiko kontroletan gertatu ahal izatea, herritarrengan orokorrean izan dezaketen eraginarengatik eta dakarten eskubideen gaineko eragin orokorrenengatik.

Gogorazi beharra dugu Herritarren Segurtasuna babesteko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoak bere 19.2. artikuluan baimena ematen duela bide, toki edo establezimendu publikoetan kontrolak egiteko bertatik pasatzen diren edo bertan dauden pertsonak identifikatze aldera, baina horretarako, alde aurretik gizarte alarma larria sortzen duen delitu-ekintza zehatzen bat gertatu behar izan da eta kontrolak ekintza zehatz horren egileak aurkitzea izan behar du helburu, atxilotu eta delituaren frogak bildu ahal izateko (19.2. artikulua) eta ematen du gure gogoetak hizpide dituen kasuetan ez dela hala gertatu.

Aipatutako legeak, halaber, polizia kideei bide publikoan edo errekerimendua egindako lekuan pertsonak identifikatzeko eta beharrezkoak diren egiaztapenak egiteko eskumena ematen die, betiere, horien identitatea ezagutzea beharrezkoa balitz legez euren esku dauden segurtasunaren babeserako funtzioak betetze aldera (20. artikulua).

Hortaz, kasu horretan ere, arrazoitzea funtsezko tresna bat da poliziaren jarduerak dagokion arauaren babesa duen zehazte aldera eta bazterkeria egoera posibleak antzeman ahal izateko. Azpimarratu beharra dugu arrazoitzeak zehatza eta nahikoa izan behar duela eta arrazoitze orokorrak ezin direla onartu, hala nola, "herritarren segurtasuna", ez badira eragindako pertsona bakoitzari dagokionez poliziaren jarduera justifikatzen duten arrazoi zehatzak eta espezifikoak azaltzen.

Gure ustez, alor honetan aurreko parametroak halabeharrezko erreferentziak dira eta aintzat hartu beharko lirateke burutzen diren esku-hartze guztietan. Era berean, poliziak arrazari lotutako ezaugarri jakin batzuetan soilik oinarritutako jarduerak

⁶⁸ 11. gomendioa.

⁶⁹ 8. a) eta 5. gomendio zehatzak.



gauzatzea saihesteko mekanismoak ezarri beharko lirateke, bai eta, azkenean burutzen badira, jarduera horiek antzemateko aukera ematen duten mekanismoak ere.

2. Poliziaren lanaren garrantzia arrazagatiko delituen kontrako borrokan

Espainiak aurkeztu dituen txostenen inguruan 2011. urtean egindako gogoetetan⁷⁰, Arrazagatiko Bereizkeria Ezabatzeko Batzordea kezkatuta agertu da ez dagoelako gertakari arrazisten inguruko daturik eta hala adierazi du:

"Le preocupa al Comité que no existan cifras oficiales sobre incidentes racistas y xenófobos, ni sobre el número de denuncias presentadas, las acciones judiciales entabladas, las condenas pronunciadas, las penas impuestas por delitos cuya agravante es la motivación racial, de acuerdo con el artículo 22.4 del Código Penal del Estado parte y las reparaciones concedidas a las víctimas (art. 2 y 6). A la luz de su Recomendación General No. 31 (2005), el Comité recuerda al Estado parte que la inexistencia o el escaso número de denuncias, enjuiciamientos y sentencias por actos de discriminación racial no debería considerarse como necesariamente positivo, ya que también puede ser un indicador, entre otros, del temor de las víctimas a la reprobación social o a represalias, de la falta de confianza en los órganos policiales y judiciales, o bien, de una atención o sensibilización insuficientes de estas autoridades frente a las denuncias por actos de discriminación. El Comité recomienda al Estado parte que:

a) Recabe de manera periódica y pública información sobre actos de discriminación racial, entre los órganos policiales, judiciales, penitenciarios y los servicios de inmigración, respetando las normas relativas a la confidencialidad, el anonimato y la protección de los datos de carácter personal;

*b) Proporcione en su próximo informe periódico datos completos sobre las denuncias presentadas, las acciones judiciales entabladas, las condenas pronunciadas"*⁷¹.

Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) poliziaren indarrek delitu arrazisten aurkako borrokan eta gorabehera arrazisten gainbegiratzean duten eginkizuna nabarmendu du⁷², eta, horri dagokionez, modu sakonean ikertzeko eta ohiko delituen motibazio arrazista aintzat hartzeko eskatu die, bai eta batzuen zein besteen erregistroa eta gainbegiratzea egiteko sistemak ezartzeko ere⁷³.

⁷⁰ 2011ko martxoaren 9an onartutako 18-20 aldizkako txostenen gaineko gogoetak.

⁷¹ Apartado 11.

⁷² Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) "delitu arrazistak" honela definitzen ditu: motibazio arrazistarekin gauzatutako ohiko delituak eta elementu arrazista eta delitua atxikita dauden kasuak (arrazagatiko gorrotoa bultzatzea edo arrazista den erakunde batean parte hartzea, besteak beste). "Istilu arrazista", berriz, honela definitu da: biktimak edo beste pertsona batek arrazistatzen jotzen duen edozein istilu (11. gomendioa).

⁷³ 2010eko urteko txostenean, Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziak (FRA) nabarmendu zuen delitu arrazisten inguruko datuak biltzeko duen garrantzia eta alor horretan dauden gabeziak agerian utzi zituen. Era berean, polizia indarren eskutik ikerketak burutzeko tresna gisa, profilak eratzearen legezko erabileren eta



Horri dagokionez, adierazi du istilu arrazista bat gertatzen denean, proposatutako zentzu zabalean, polizia indarrek ikerketa zehatza egin behar dutela. Modu berean, azpimarratu du oso garrantzitsua dela polizia-agenteeek salaketa horien aurrean hartu behar dituzten neurrien inguruko jarraibide zehatzak jaso dezaten, hala nola: biktimarekiko sentsibilitatea, istilua gertatu den tokiko jarduerak froga posible guztiak biltze aldera, lekukoak topatzea eta galdeketa egitea eta susmagarria den pertsonaren bilaketa. Halaber, espezializatutako polizia unitateak sortzeko gomendioa egin du⁷⁴.

Gure ustez, aipatutako gomendioak derrigorrezko erreferentzia bat dira polizia-kidegoek alor horretan burutzen dituzten jardueretan. Gure ikuspuntuari jarriki, atestatuen instrukzioak aztertzeari buruzko ikuspegi hori barne hartu beharko luke.

3. Pertsonen arraza edo nazio jatorriari buruzko daturik ez ematea, eskaintzen den informazioa ulertzeko guztiz ezinbestekoak ez badira

Erakunde honek hainbat bider adierazi du kezkatuta dagoela erakundeek eskaintzen duten informazioaren tratamendu okerrak biztanle etorkinengan eta horien gizarteratzean izan dezakeen eraginari dagokionez. Poliziari dagokionez "San Frantzisko eremuan atzeritarrekiko burututako polizia jarduerak" izeneko txostenean⁷⁵ eta "Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen mendeko polizi kidegoek jokaera-kodeak erabili behar dituzte immigrazioari buruz ematen duten informazioaren tratamendurako" izeneko gomendio orokorrean jorratu dugu gaia⁷⁶.

Izaera orokorreko azken gomendio horretan azaldu genuen bezala, poliziaren prentsa oharrek nazionalitatearen erreferentziak ekidin behar dituzte informazio orokorra ulertzeko guztiz beharrezkoak ez badira. Izan ere, gure ustez, erreferentzia horiek ez diote atzeritarren gizarteratzeari laguntzen, gizakien errealitate horren ikuspuntu negatiboa islatzen baitute eta haiekiko gizarte aurreiritziak sortzen edo indartzen baitituzte. Halaber, ulertu genuen polizia kidegoek informazio iturri gisa jokatu behar dutela eta alor horretako berezko jokaera-kodeak garatu behar dituztela. Horretarako, 2000. urteko apirilaren 5eko Immigrazioaren Gizarteratzerako Euskal Foroaren zuzentarauak erreferentzia gisa hartu beharko lituzkete (horiek gomendioaren eranskin gisa gaineratu genituen).

Kontu horren inguruan galdetzen dugunean, administrazioek helarazten diguten informazioarekin bat eginez, aipatutako kodeak ez direla ezarri ondorioztatu dugu. Hortaz, gomendioaren iraunaldia eta bertan azaldutako zentzuan lan egiteko beharra errepikatu nahiko genuke.

bazterkeriarik eza bermatzen duten arauak urratuz egindako erabileren artean bereizketa egiteko argitaratu duen gida aipatu du.

⁷⁴ 11. gomendioa, 11. eta 12. idatz-zatiak.

⁷⁵ 10. gomendio zehatza.

⁷⁶ 2004ko urteko txostena.



Bestalde, Europako Kontseiluko Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordeak (ECRI) ere alderdi hori jorratu du eta aditzera eman du polizia indarrek ez dutela jendaurrean ezagutarazi behar delitu baten ustezko egilearen arraza, kolorea, hizkuntza, nazionalitatea edo jatorri etniko edo nazionalari buruzko informazioa. Izan ere, informazio mota hori soilik ahalko dute ezagutzera eman guztiz beharrezkoa bada eta legezko xede bati erantzuten badio, hala nola, ustezko gaizkileak bilatzeko abisu bat. Era berean, azaldu du polizia indarrak, informazio estatistikoa ematen dutenean, saiatu behar direla delitua jatorri etnikoarekin lotzen duten edo immigrazioaren gorakada delituen gorakadarekin lotzen duten mitoak ez zabaltzen edota betikitzen. Halaber, informazio objektiboa, era askotako gizartearekiko adeitsua eta berdintasunaren aldeko informazioa zabaltzen dutela bermatu dezaten gomendatu du⁷⁷.

Gure aburuz, gomendio horiek ezartzeke dauden jokabide kodeetan gaineratu beharko lirateke.

VII. PRESTAKUNTZA

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legeak prestakuntzaren garrantzia aitortu du⁷⁸ eta ezarri du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideek prestakuntza eta gaikuntza profesional iraunkorra jasoko dutela euren funtzioen garapen egokia bermatze aldera (39. artikulua).

Erakunde honen iritziarekin bat eginez, prestazioa legez kanpoko jarduera posibleen aurkako prebentzioan lehen mailako mekanismo bat da eta hala adierazi dugu behin baino gehiagotan⁷⁹. Orokorrean eta alderdi zehatzetan prestakuntzaren balio prebentiboa eskubideak bermatzeko Europako eta nazioarteko organismoek nabarmendu dute, aurreko ataletan islatuta geratu den moduan⁸⁰.

Hori dela eta, errepikatu behar dugu egokiak diren prestakuntza programak ezartzeko beharra. Gure ikuspegiari jarraiki, programa horiek nahitaez giza eskubideen inguruko prestakuntza orokorra barne hartu behar dute, bai eta agiri honetan aipatu ditugun gai zehatzen gainekoa ere.

Gure ustez, prestakuntza giza eskubideenganako errespetuari buruzko balorez osatuta egon beharko litzateke, oraindik ere gizartearen pentsamenduan dauden

⁷⁷ 11. gomendioa (20. idatz-zatia).

⁷⁸ Zioen azalpenean zera adierazi da: "polizia ezin da eraginkorra izan kideek prestakuntza egokia, eginkizun zehatz horretara egokitua eta une oro eguneratua dagoena ez baldin badaukate".

⁷⁹ "San Frantzisko eremuan atzerritarrekiko burututako jarduera polizialak" gaiari buruzko txostenean polizia-agenteen etengabeko prestakuntzaren (eremu horretan egiten duten lanean eragina izan dezaketen gai zehatzei buruzkoa) garrantzia azpimarratu genuen, bai eta prestakuntza hori sustatzea egokia litzatekeela adierazi ere (5. gomendio zehatza).

⁸⁰ Europako Ministro Kontseiluaren Batzordeak, bere aldetik, kontu hori jorratu du Poliziaren Etikari buruzko Europako Kodearen gaineko 2001eko irailaren 19ko gomendioan (26-30 idatz-zatiak). Halaber, Nazio Batuen "Poliziarentzako giza eskubideei buruzko gidaliburu zabaldia" (2003) izenekoan ere berariaz jaso du.



kontrabaliokoak bereziki nabarmenduz, hala nola, arrazismoa, xenofobia, sexismoa, homofobia, etab.

Erakunde honek uste du giza eskubideen gaineko prestakuntza funtsezkoa dela poliziaren erakundearen barruan jokabide desegokiak saiheste aldera⁸¹.

Azkenik, uste dugu programa horiek gainbegiratu beharko liratekeela euren eraginkortasuna eta poliziaren praktikan duten eragina egiaztatzeko.

VIII. JARDUTEKO PROTOKOLOAK EZARTZEA

“Inkomunikatutako atxiloketaren eremuko berme sistemari buruzko azterlana eta hobekuntza proposamenak” izenekoan adierazitakoarekin bat eginez, alor horretan ere jarduera protokoloak ezarri beharko liratekeela uste dugu. Horrela, aurreko ataletan proposatu ditugun neurriak betetzen direla bermatuko litzateke eta kasu bakoitzean aintzat hartu beharreko jarraibideak argi eta garbi zehaztuko lirateke.

IX. ONDORIOAK

A) Poliziaren jardueretan gainbegiratzeko mekanismoak ezartzeko beharra

1. Polizia-kidegoek euren jarduerak gainbegiratzeko mekanismoak ezarri behar dituzte, gerta daitezkeen praktika okerrak prebenitzeko eta kontrolatzeko modu gisa.
2. Ikerketako barne prozedurari ofizioz hasiera eman behar zaio, agenteren batek ustez oker jardun duela jakinez gero, gertatutakoa ikertu, jarduera hori bide egokitik joan ote zen egiaztatu eta, hala badagokio, bidezko neurriak hartzeko, nola diziplinazkoak hala beste izaera batekoak.
3. Poliziaren jarduera oker baten zentzuzko edozein salaketa edo seinaleren ikerketa berehalakoa eta inpartziala izan behar da. Horrez gain, edukia gertakariak argitzeko egokia eta nahikoa izan behar da. Poliziaren arduradunek ikerketarentzat eskuragarri dauden eta gertatutakoa argitze aldera erabilgarriak diren ikerketa aukera zentzudun guztiak agortu behar dituzte. Kexen ikerketa ezin da eragindako polizia-agenteen testigantza jasotzeari mugatu.
4. Eginbide penalak tartean egotea ez da oztopo bat poliziaren jarduera bat ikertzeko, ezta prozedura horren eta kexaren xedean bat egiten dutenean ere,

⁸¹ Erakunde honek poliziaren funtzio publikoan sartzeko aurkeztu ziren bi pertsonen kasu batean esku hartu zuen; izan ere, salatu zuten hautapen prozesuaren prestakuntza ikastaro ofizialeko zenbait kidek izaera homofoboa zuten txantxa iraingarriak egiten zizkietela. Kasu horri buruzko informazio gehiago topatu daiteke 2010eko urteko txostenaren "Herri-administrazioen zerbitzurako langileak" ataleko sarreran.



betiere, horri buruzko edozein ebazpen epai irmoa eman arte atzeratzen bada. Ez da oztopo bat ere erakunde honek prebentzioaren alorrean edo prozedura penaletik kanpo geratzen diren kontuen gainean esku hartu dezan.

5. Poliziaren jarduerari buruzko datuak biltzeko sistemak ezarri behar dira, jarduera hori ebaluatzeko eta jarraipena egiteko aukera ematen dutenak eta, hala badagokio, dagozkion neurriak hartzeko aukera ere.
6. Eskubideak mugatzen dituen poliziaren edozein jarduera behar bezala erregistratua geratu behar da eta hori eragin duten arrazoi zehatzak behar bezainbeste dokumentatu behar dira. Arrazoitzean zenbait termino orokor ez dira onargarriak, hala nola, "herritarren segurtasuna" edo "poliziaren lanaren interferentzia" ez bada zehazten.
7. Indarra erabiltzen bada, behar bezala dokumentatu behar da, eta zehatz-mehatz azaldu behar da zer-nolako indarra erabili den, gero neurri hori ikuskatu ahal izateko. Gainera, arrazoizko iritzi batean oinarrituta egon behar du eta, kasu bakoitzean, hierarkian goren daudenek kontrolatu eta berretsi behar dute. Neurri hori poliziaren egoitzatik kanpo hartzen bada, agenteek agintaritza eta kontrol zentroari jakinarazi behar dizkiete beren jokoeraren zergatiak. Jarraibide horiek betetzen direla ere behar bezala egiaztatu behar da agiri bidez.
8. Hasierako momentutik epaiketa bidean arau-hauste gisa kalifikatutako gertakarien ondoriozko atxiloketak saihesteko kontrol mekanismoak ezarri behar dira, atxiloketen jarraipena egin behar da eta hasiera batean bide judizialean arau-hauste gisa kalifikatzen direnak aztertu behar dira, bai eta horiek agente jakin batzuetan pilatzen diren ere.
9. Poliziaren arduradunak ohartarazi behar dira gerta daitekeela ordenamendu juridikoak atestatu edo salaketa bat egiteko ematen dien ahalmenaz gehiegi baliatzea eta, gertakariei dagokienez, agiri horien edukia errealtatetik aldentzea saihesteko mekanismoak ezarri behar dituzte, bai eta, hala gertatuz gero, alor horretako gehiegikeriak antzemateko ere.

B) Bermeak atxiloketan zehar

10. Atxiloketaren hasieratik, atxilotutako pertsonak abokatu baten laguntza eskuratu dezan errazteko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira. Horretarako, eskaera Abokatuen Elkargoari ahalik eta azkarren egin behar zaio eta jakinarazpenaren eta gerta daitekeen edozein istiluren xehetasunak dokumentatuak egon behar dira.
11. Atxilotutako pertsonari unean bertan eta berarentzat erraza eta ulergarria den hizkuntza erabiliz, haren atxiloketa eragin duten gertakari eta arrazoi juridikoen berri eman behar zaio, bai eta bere eskubideak eta horiek gauzatzeko modua jakinarazi ere. Poliziaren bulegoetan informazio hori albait lasterren eman behar da. Polizia-agenteek ziurtatu beharko lukete atxilotutako pertsonak bere





eskubideak ulertu dituela. Atxiloketa gertatzen den unean eskaintzen den informazioa behar bezala dokumentatu beharko litzateke. Oro har, atxiloketa gauzatzen duten polizia-agentek eta polizia-bulegoetan atxilotuari euren eskubideen berri ematen dioten eta eskubideak jakinarazteko akta sinatu dezan ematen diotenak ez lirateke pertsona bera izan beharko.

12. Atxiloketaren izapideek hori egiteko behar den gutxienezko denbora iraun behar dute. Deklarazioa hartzea (edo deklaratzeari uko egitea) ahalik eta azkarren egin behar da, atxilotua askatasunik gabe mantentzea exijitzen duten ikerketa jarduerak garatzeko nahitaezko denbora hain zuzen. Atxilotutako pertsonenganako arretak lehentasuna behar du. Gertatutako edozein atzerapen behar bezala dokumentatu behar da eta horren arrazoiak jaso behar dira.
13. Epaitegiari egin beharreko jakinarazpena albait lasterren egin behar da.
14. Atxilotua biluzarazita egiten den gorputzaren miaketa ezin da ohiko jarduera bat izan, atxiloketetan sistematikoki erabiltzeko. Hori egiteko justifikazioa beharrezkoa da eta, horretarako, kasuaren inguruabarrak alde aurretik baloratu behar dira eta neurriaren proportzionaltasuna epaitu behar da. Halaber, irizpide orokor gisa atxilotutako pertsona arropa guztiak (barruko arropa izan ezik) kentzera behartzea ez da onargarria ez bada justifikatzen.
15. Miaketen edukiak eta atxiloketari lotutako gainontzeko agiriek gorputz miaketaren deskribapen nahikoa eta zehatza gaineratu behar dute, atxilotua biluzaraziz egin ote den, modu batean edo bestean zergatik egin den eta neurriaren proportzionaltasunaren epaiketa barne hartuz. Arrazoiak zehatza izan behar da eta nola burutu den nahikoa eta zehatza den deskribapen baten bidez azaldu behar da; izan ere, "segurtasuna" bezalako arrazoi generikoak ez dira baliodunak, a posteriori ez baitute jarduera kontrolatzeko eta justifikazioaren arrazoi zehatzak ezagutzeko aukerarik ematen.
16. Atxiloketari lotutako erregistro eta izapide guztiak betetzerakoan arreta handia jarri behar da. Modu horretan, xehetasunak ahalik eta modu zehatzenean islatuko dira eta orduei eta garatutako jardueri dagokienez bat ez etortzeak saihestuko dira.
17. Atxilotutako pertsonen eman behar zaizkien otorduen ordutegia eta kopuruari buruzko irizpide orokorrak ezarri behar dira alor horretan ohikoak diren jarraibideak aintzat hartuz. Horrez gain, eginbide posible guztiak non gauzatu behar diren argitu behar da. Irizpideok kontuan hartzen ez badira, hartutako erabakia justifikatu beharko litzateke eta justifikazioa jasota geratu beharko litzateke. Era berean, erlijioagatik edo moralezko sinesmenak direla eta atxilotutako pertsonen elikadurari dagokionez dituzten ohiturak errespetatu behar dira.
18. Ezarri behar diren bidegrabazio-sistemek honako hau ahalbidetu behar dute: grabazioa atxiloketaren unean bertan hastea; poliziaren bulegoko gela,





atxiloketa-eremu eta polizia-agenteen eta atxilotuaren arteko elkarrekintzak gertatzen diren leku guztiak barne hartzea, atxilotuak aurkakoa esaten ez badu behintzat. Grabazioek irudiak eta soinua gaineratu behar dute eta defentsarentzat eta eskubideak babesten dituzten erakundeentzat eskuragarri egon behar dira. Sistemaren arduraduna independentea izan behar da, atxiloketak eta zainketa burutzen duten unitateen funtzionamenduari eta antolakuntzari dagokionez. Grabatutako materialaren berrazterketa sistematikoa egin behar da eta grabatutako jardunen ondoriozko erantzukizun administratibo eta penal posibleak preskribatzeko gehieneko epealdia errespetatzeko nahikoa denboraz gorde behar da, bai eta eskubideak bermatzeko erakundeek esku hartzeko duten epean zehar ere. Grabatutakoa ikusi bitartean antzemandako gorabehera posibleen erregistroa egitea beharrezkoa da; horrela, ondoren, grabatutako materiala modu errazean eta eskuragarrian ikusi ahalko da.

C) Indarra erabiltzea

19. Gizarte demokratiko batean, hiriko espazioa ez da zirkulazio-eremua bakarrik, baizik eta baita ere parte hartzeko gunea, elkartzeko eta iritzia askatasunez adierazteko eskubidea betetzeko gunea. Indarra erabiltzea azken baliabidea izan behar da beti. Erabilitako indarrak egokitasunaren, beharraren eta proportzionaltasunaren legezko printzipioak modu hertsian errespetatu behar ditu. Proportzionaltasunaren printzipioa indarra erabiltzeari aplikatzeko, erabaki hori egokia izan behar da lortu nahi den helburua erdiesteko. Modu berean, horrek esan nahiko du, helburu hori erdieste aldera, ez dagoela horren garestia ez den eta egokia den beste neurririk eta neurri horrek ez duela saihesten dituenak baino kalte larriagorik eragiten. Halaber, lortu nahi den xederako ahalik eta indar gutxien erabili behar da. Horrek esan nahi du, erabilitako bitartekoa kaltegarria ez dena izan behar dela eta kaltegarria ez den moduan erabili behar dela.
20. Bide berriak aztertu behar dira posible den guztietan gatazkak konpontzeko neurri gisa indarra erabiltzea saihesteko. Ikuspuntu horretatik, uste dugu erabilgarria izango litzatekeela polizia-agenteei bitartekotza tekniken eta gatazkak konpontzeko modu alternatiboen arloan prestakuntza jasoko balute, bai eta lan horretan espezializatu diren lan taldeak ezartzea ere. Hori guztia bitartekotza mekanismoak jarri eta sustatzeko moduan egon daitezkeen, esku-hartze batean gerta daitezkeen tentsio-egoerak desagerrarazteko asmoz.
21. Azkenaldian ikusi ditugun gizarte-aldarrikapen fenomeno berriek errealitate horretarako egokiak diren poliziaren erantzunak beharrezko bihurtzen dituzte. Erantzunak manifestatzeko edo biltzeko eskubidea gauzatzen ari diren pertsonen jarrera aintzat hartu behar dute, hau da, baketsua edo bortitza.
22. Pertsonentzako edo ondasunentzako arriskua duten ordena publikoaren asaldurak gertatuz gero (horrek igarobide publikoan egiten diren manifestazioak edo bilerak desagitea legitimatu egiten du), egin beharreko interpretazioa





Konstituzioan jasotako manifestatzeko eta biltzeko eskubideen gauzatzearen aldekoa izan behar da.

D) Polizikideen uniformearen identifikazio pertsonaleko zenbaki edo erreferentzia bat gaineratzea

23. Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziako kideek zenbaki edo erreferentzia bat eraman behar dute euren uniformearen, argi eta garbi ikusteko moduan. Horrela, edozein pertsonak identifikatu ahalko ditu informazio hori eskatu gabe. Identifikazio sistemak polizia-agenteen segurtasuna bermatu behar du. Betebehar hori lege maila duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia osatzen duten polizia-kidego guztiak barne hartzen dituen arau baten bitartez ezarri beharko litzateke. Horretarako, gaur egun izapidetzen ari den Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekeko Legearen aurreproiektuak ematen duen aukera aprobetxatu ahalko zen. Bitartean, administrazio bakoitzak betebeharra haren eskumenen eremuan ezarri beharko luke.

E) Jatorri atzerritarra duten pertsonen aurkako jarduera diskriminatzaileak saihesteko mekanismoak ezartzea

24. Jatorri atzerritarra duten pertsonen aurkako jarduera diskriminatzaileak saihesteko mekanismoak ezarri behar dira, batez ere identifikazio kontrolen eremuan eta immigrazioari buruz zabaltzen den informazio polizialari dagokionez.

25. Polizia-kidegoek eginkizun aktiboa hartu behar dute euren gain istilu arrazisten aurkako borrokan.

F) Prestakuntza

26. Prestakuntza programa egokiak ezarri behar dira, poliziaren funtzioa modu egokian gauzatzen dela bermatzen dutenak eta poliziaren erakundean bertan okerreko jokabideak prebenitzen dituztenak.

27. Programa horiek nahitaez giza eskubideen inguruko prestakuntza orokorra barne hartu behar dute, bai eta agiri honetan aipatu ditugun gai zehatzen gainekoa ere.

28. Halaber, prestakuntza giza eskubideenganako errespetuari buruzko balorez osatuta egon beharko litzateke, oraindik ere gizartearen pentsamenduan dauden kontrabaliok bereziki nabarmenduz, hala nola, arrazismoa, xenofobia, sexismoa, homofobia, etab.

29. Programa horiek etengabe gainbegiratu beharko lirateke euren eraginkortasuna eta poliziaren praktikan duten eragina egiaztatzeko.





G) Jarduera protokoloak ezartzea

30. Proposatu ditugun neurriak betetzen direla bermatzen duten eta kasu bakoitzean bete beharreko jarraibideak argi eta garbi zehazten dituzten jarduera protokoloak ezarri behar dira.